

FONTES LINGVÆ VASCONVM

stvdia et
docvmenta




SEPARATA

Año XLVI • Número 117 • 2014

Artzibarko aldaera deitu izanaren
inguruan (8 – Elkanoko aldaerarekiko
zenbait erkaketa)

KOLDO ARTOLA

FONTES LINGVÆ VASCONVM stvdia et docvmenta



Xahoren Aitor Hegoaldeko XIX. mendeko narratiban <i>Ana M. Toledo</i>	5
Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (8 – Elkanoko aldaerarekiko zenbait erkaketa) <i>Koldo Artola</i>	25
Oinarrizko emozioen ezaugarri akustikoez <i>Iñaki Gaminde / Urtza Garay / Aintzane Etxebarria / Asier Romero</i>	101
Euskal hitz-ordenaren norabidea: idealismo ideologikotik pragmatismo komunikatiborantz <i>Julian Maia</i>	121
Juan Arin Dorronsororen «Material Toponímico» argitaragabearen 25. paper-zorroa <i>Luis Mari Zaldúa</i>	169
A Descriptive Analysis of Basque Hypocoristics <i>Paxi Salaberri Zaratiegi / Iker Salaberri Izko</i>	187

Año XLVI
Número 117
2014

Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan

(8 – Elkanoko aldaerarekiko zenbait erkaketa)

Koldo ARTOLA*

Saio hau Artzibarko aldaerari egokitu hiru herritako datuak geografikoki hegoaldean den Elkanokoari deitu beste hiru herritakoekin erkatzeko baliatu dugu.

Bost izan ziren hasiera batean, eta zazpi izatera iritsi bukaeran, horretarako prestatu zutabeetan kokatu ditugun herrietako datuak. Eskuin aldetik hasi –saio hauek Artzibar izena baitute oinarri eta abiapuntu– eta ezkerre-ranzko norabidean, lehenengoan Arrieta artzibartar herriko datu batzuk kokatu genituen aurrenik; bigarreanean, ibar bereko Uritz herriko *Catecismo* batetik ateratako beste batzuk; hirugarrenean, Ilurdotz esteribartar herriko beste zenbait; eta laugarren-bosgarrenetan Eguesibarko Elkanon, bi garai desberdinetan bildurikoak.

Gerora, baina, seigarren zutabea prestatzea egoki iruditu zitzaigun Elortzibarko Zabalegi herrian 1785. urtean idatzi zen prediku bateko datuak jasotzeko, hauek, urriak izanagatik, erkaketa-kontu honetarako baliagarriak izan zitezkeelakoan eta, are, zutabeekin amaitzeko, zazpigarrena izatera iritsi dena ere, azken unean Urraulgoitiko Aita Esteban (Pedro Francisco Markuello haren deitura) kaputxino adoaindarraren izkribuen lagin batzuk hona ekartzeko baliatu duguna, hau ere interesgarria izan daitekeena, bere mintzamoldearen jatorriasunaz zalantza ugariak izan ditugun arren.

* Donostiako Aranzadi Zientzi Elkarteko Etnografi Sailekoa. Esker biziak damazkiot, arazo gehienbat gramatikalak direla-eta, Euskal Filologian lizentziatua den eta laguntzaile izan dudana Xabier semeari.

Azken erabaki honen ondorioz, bada, hasieran aipaturiko bost zutabeei beste bi erantsi dizkiegu: bat, ezker muturrean, Zabalegi; bestea, eskuinekoan, Adoain, bata zein bestearen kokapen geografikoa kontuan harturik. Hona, beraz, zutabeotako azken kokapena, oraingoan mendebaldetik abiatu eta ekialderanzko norabidean: Zabalegi (Elortzibar), Elkano (Eguesibar; hemen bi zutabe), Ilurdotz (Hego-Esteribar), Uritz eta Arrieta (Artzibar), eta Adoain (Urraulgoiti), guztiak ere Bonaparte printzeak *cispamplonés*-tzat jo zuen azpieuskalkiaren barruko esparrurik handienaren baitan, esparru bereko beste hiru aldaerak –Olaibarkoa, Erroibarkoa eta Aurizkoa– erkaketa honetatik kanpo utzirik.

Izan ere, saio honen oinarrian Iñaki Camino filologo ospetsuak duela hamar urte inguru plazaratu zuen *Hego-Nafarrera* izenburuko lanean ondorioztatzen duen ustea neurri batean ere bada. Horren arabera, behin Artzibarko eta Eguesibarko mintzaeren arteko antzekotasuna agerian utzi ondoren, bie *Erdialdeko hego-nafarrera* gisako izendapena ematen die, bion arteko loturak izan litezkeen Arriasgoiti eta Lizoaingo ibarretako mintzairak ezezagunak baizaizkigu ere.

Kontua da, arestian aipatu Arrietan eta Ilurdotzen duela 25-30 urte datu-sorta eder bana bildu genuela baliaturik, zera bururatu zitzaigula: koadro batzuk prestatu eta, honen aurreko saioan eginikoaren haritik, erkaketa berri bat egitea, oraingoan Artzibarko aldaeratik kanpora begiratzeko xedez. Egiteko hau luzea izateaz gainera, nekagarria ere gertatu da, datuak bilatzeko orduan iturriak hainbat eta hainbat aldiz ikusi eta berrikusi behar izan ditugulako, baina, behin datu-arakatzea egiten hasita, saioa bururaino eramateko hautua egin dugu, arakatze hau, jakina, neurri batekoa izan bada ere.

Hots, Elkanoko Lizarragaren produkzio osoa ez dugu ikusi eta, hau honela, haren datuak biltzeko prestatu dugun zutabeko gabeziak zenbaterainoak diren ez dakigu eta ezin jakin dezakegu, nahiz, pentsatzekoa denez, asko samar izango diren. Besterik da Lizarragaren hainbat eta hainbat datu interesgarri saio honetara ekarri gabe utzi izana, zerekin erkatzerik izan ez dugulako; hots, Lizarragaren datuak baliatu ditugu harenak baino askoz ere urriagoak diren gainerako zutabeetan idatzi ditugunekin erkatu ahal izateko heinekoak izan diren neurrian bakarrik.

Datuen kokapenari dagokionez, horretarako prestatu leihatiletan lekua irabazi nahi eta, hitzen baten aldaera idazterakoan, honela jokatu dugu: 1) Sinonimo, antzeko, hurbileko edota hari berekoak direnenean, (,) idatzi dugu: *arin, zalui*; 2) Antonimo direnen kasuetan, (/): *argitu / ilundu*; eta, 3) Zerikusi beharreko hitzen kasuetan (;): *izotzilla; otxalla*. Baldin herri batean *garbi* bildu bada eta beste batean *garbitu* (edota *zikin* eta *zikindu*), batzuetan zein bere leihatilan idatzi dugu, baina inoiz, leihatilan leku izanez gero, bata bestearen ondoan.

Leku-irabazi nahi horri loturik, inoiz, leihatilaren batean *anitz* eta *aunitz*, *ardanze* eta *ardantze*, edota *reposki* eta *erreposki* idatzi behar izan badugu, *a(u)nitz*, *ardan(t)ze* eta *(er)reposki* gisako eran idatziz azaldu dugu geure asmoa. Leihatilotan, bestalde, hitz arruntez gainera, beren baitan bestelako datu interesgarriren bat erakuts dezakeen hainbat konturi egin diogu leku, dela modismoa, dela atzizkia edo dena delakoa, hauek, egia esateko, oso era ortodoxoan aurkeztu ez baditugu ere.

Hona, jarraian, eta ezker aldetik abiatuturik, zutabeok elikatzeke erabili ditugun iturriak:

- Lehenengo zutabearen: 1785eko data darakusan Zabalegiko predikutik ateratako datu batzuk. Sermoilariaren izena ezezaguna zaigu, jakiten saiatu garen arren.
- Bigarrenean: Elkanoko Joaquín Lizarraga (1748-1835) idazle ospetsuaren zenbait eskuizkributatik ateratako datu ugari (ikus beheago). Haiek idatziak izan ziren gutxi-gorabeherako data aukeratzekoan, 1800. urtekoa hautatu dugu, batzuk data honen aurretik eta beste batzuk ondotik idatzi zirenez gero.
- Hirugarrenean: Elkano bereko Javier Larrainzarri Bonaparte printzeak 1869. urtearen inguruan bildu eta, duela zenbait urte, Aita Patxi Ondarra zenak aldizkari honetan argitara eman zituenetiko batzuk, 1869. urteko data Ondarrak berak proposaturikoa izanik.
- Laugarrenean: Esteribarko Joaquín Garrues ilurdoztarrari duela 30 urte inguru bildu genizkion datu batzuk.
- Bosgarrenean: Artzibarko Uritz herrian Juan Cruz Elizalde 1865. urtearen inguruan idatzi zuen doktrinatik hartutako batzuk. Elizalderen nongotasuna zehazterik ez dugun arren, inguru horretakoa zen uste osoa dugu.
- Seigarrenean: Artzibar bereko Saturnino Etxamendi arrietarrari duela 30 urte inguru bildu genion zenbait datu.
- Eta zazpigarrenean, azkenik: Urraulgoitiko Aita Esteban (1808-1880) adoaindarraren zenbait eskuizkributatik ateratako beste batzuk. Haiek idatzi zireneko gutxi-gorabeherako data aukeratzekoan, 1855. urtekoa hautatu dugu.

Zutaberik ahulenak Zabalegikoa eta Urizkoa izanik –Adoingoa ez hainbeste– eta beretan ukitzen den gaia doi-doi erlijiosoa, gainerako zutabeak nola edo hala baldintzatu dituzte. Elkanoko lehenengo zutabea, baina, Lizarragaren eskutiko datuak ekartzeko erabili duguna, ez dago kasu berezuan, zeren bertan gai horixe nagusi izan arren, bere izkribuetan hainbeste eratako irudi, adibide eta egoera irudikatu zuenez, horren emaitza gainerako zutabeetakoena baino orokorragoa eta aberatsagoa agertzen da han-hemenka erabili adibideetan barrena.

Elkanoko Lizarragaren datuak kokatzeko zutabearen izena idaztean, izen bereko aldaerari egokituriko herrien artean berau erreferentzia nagusia izanik, letra larriz idatzi dugu, eta, Artzibarko aldaerari gagozkiola, berriz, Arrietaren izena irudikatu dugu halakotzat, gauza bera eginez.

Hitzak zein bere leihatilan alfabetikoki idaztean, hortaz, Elkanoko Lizarragarena izan dugu oinarri, bera baita, zutabe guztien artean, daturik gehien ekartzen duena, besteak, hein handi batean, hari begira daudela.

Hona, horiek horrela, Elkanoko zutabe nagusi hau prestatzerakoan gehien arakatu ditugun iturriak:

- *Jesucristoren evangelio sandua Juanec dacarran guisara*. Honetarako, aspaldi, Nafarroako Diputazioko Artxiboan egin ziguten Bonaparteren Testamentariako lan inprimatuaren kopia baliatu dugu. Grafia kontuetan –hitzen arteko gidoiak-eta, besteak beste–, badu 1996an argitaratu zen *Bonaparte ondareko eskuizkribuak* deritzanean agertzen denarekin zenbait desberdintasun.
- *Doctrina christioarén cathechima* - Juan Apecechea Perurenak moldatua.
- *Koplak* - Juan Apececheak apailatua.
- *Jesukristo, Maria eta santuen bizitzak* - Juan Apececheak eta Patxi Ondarrak moldatua.
- *Ongui iltzen laguntzeco itzgiaic* - Francisco Ondarrak prestatua.
- *Programa de vida cristiana en una aldea de la zona de Pamplona en el siglo XVIII* - Juan Apececheak aldizkari honetan argitara emana.
- *Tratado sobre el matrimonio, de Joaquín de Lizarraga (año 1782)* - Juan Apececheak aldizkari honexetan argitara emana. Lana, halere, *erderismoz* josita dago, bera prestatu eta ohar ezin aberatsagoz jantzi duen Apececheak berakdioenez.
- *Nuevo documento no catalogado de Joaquín Lizarraga* - Jose Maria Satrustegik prestatua.
- *Hegoaldeko nafarrera, 3 eta 4* - Deustuko Unibertsitateko lan talde batek (Rosa Miren Pagola, Elena Alkiza, Ainhoa Beola, Itziar Iribar eta Juan Jose Iribar) 1996an argitara emaniko *Bonaparte ondareko eskuizkribuak* lan erraldoiaren baitan txertatua. Bertatik hartu ditugun datuak asko dira, batzuk orripeko iruzkinen bidez islatuak. San Mateoren ebanjelioa, haatik, ez dugu kontuan hartu, ez baitugu hor Lizarragaren eskua garbi ikusi.

Aztertu ere, Aita Policarpo Iraizozkoaren *Vocabulario y fraseología de Joaquín Lizarraga*, aldizkari honetan aspaldi argitaratua, osoki aztertu dugu, bertatiko ohar mordoxka lan honetarako baliatuz. Aita Policarpok prestatu zuen saioaren lehenengo entregan (*FLV*, 29), bide batez esanik, eta *Advertencias previas* azpitupean, zinez interesgarriak iruditzen zaizkigun oharrek dakuskigu. Hona haietako batzuk, Lizarragaren eskuizkribu handi baten nolakotasunez ari zela:

Tampoco figuran todas las palabras y partículas castellanas que Lizarraga emplea sin ningún reparo y muchas veces sin ninguna necesidad, pues existen las correspondientes palabras vascas o vasquizadas que él conoce y usa en otras ocasiones. También de estas palabras aparecerán no pocas en las frases que se citan.

No faltará tal vez quien se escandalice de tantos erderismos no sólo de léxico, sino también de gramática y de sintaxis, y piense que no vale la pena

ocuparse de un autor tan poco digno de imitación. Sin embargo no faltan en Lizarraga datos muy útiles para el estudio del euskera que se habló en esa parte de Navarra.

Esan ere, lehenxeago, Apececheak apailatu *Tratado*-aren berri ematean, halakoa *erderismoz* josita dagoela esanik baikaude, hark berak esanikoari jarraiki.

Patxi Ondarrak, halaber, *Producción literaria de Joaquín Lizarraga (1748-1835)* izeneko lanean, jakingarriak izan daitezkeen gauzak aipatzen ditu; hala nola:

Se ha calificado a Lizarraga de «gigante solitario». Ciertamente que es un gigante; pero esperemos que su soledad vaya desapareciendo, a medida que se vayan conociendo otras obras de nuevos escritores navarros.

Lizarraga no escapó al influjo de Larramendi. Basta ver el uso que hace de los vocablos del Diccionario Trilingüe, llegando en alguna ocasión a citar expresamente al ilustre jesuita, como cuando, al hablar de la expresión Ave, María, dice: «Dió Aita Larramendic Agúrr Maria erran beardéla».

Conoció igualmente la obra de Axular, habiendo sido suyo el ejemplar del Guero de la Biblioteca de los Capuchinos de Lecároz, como lo hace notar el P. Riezu.

La razón de su abundante producción literaria hay que buscarla en su celo por dar suficiente pasto espiritual a los campesinos, dando así cumplimiento a lo dispuesto por el Tridentino sobre el particular, como lo expresa varias veces.

No consta que escribiese con miras a la imprenta. En alguna ocasión nos da a conocer la finalidad de su trabajo. Así en el manuscrito núm. 9, página 2 sin numerar, prólogo, dice: «Escrivitút itzgái urréngoac, izatecó prést cerbáit erratecó neuronéc; eta bércenorbaitec, ni ilasguéros, naibadú valiátu cerbáit ebétras» (he escrito estas pláticas para tener algo a mano yo mismo; y otro, después de mi muerte, si quiere valerse de ellas). Añade que no las ha escrito porque así estén bien; sino porque es mejor eso que nada. Con lo cual está pensando evidentemente en los posibles usuarios.

Le preocupaban los campesinos, aldiritarrac, la gente de las aldeas, erri chipittoac, que andaban escasos de alimento.

Lizarragaren eskutiko datuak biltzerakoan, hainbat eta hainbat hitz era ezberdinez idatzirik dakusagunez (*aberats* eta *abrats*; *adina* eta *adiña*; *adizkide*, *adiskide*, *aixkide*, *aiskide* eta *aiskire*; *aditu* eta *aitu*; *aingiru* eta *aingeru*; *aisa* eta *aise*; *altzin*, *alzin* eta *aitzin*; *altzur*, *alzur* eta *ailtzur*; *amabortz* eta *amaborz*; *anitz*, *aunitz*, *anditz* eta *aunditz*; *bedratzi* eta *bedrazi*; *begiratu* eta *beiratu*... –hitz-zerrenda, zinez, bukaezina litzateke–), ahal moduan ibili gara; batzuetan, aldaerok kokatzeko lekua izanda, bertan txertatuz; besteetan, *a(d)iskide*, *al(t)zin*, *bed(e)ratzi* edota *be(g)iratu* idatziz; eta, beste batzuetan, bateonbat aukeratu eta besteren bat baztertuz.

Hitzak hona ekartzean, ez ditugu hitz osoak bakarrik baliatu, beren barnean aldaketaren bat aurkezten dutenak ere bai baizik: sinkopak (*abrats* < *aberats*), diptongazioak (*amain* < *amaren*) edota silaba-galtzeak (*yago* < *gehia-go*), esaterako, kasu bakar batzuk aipatzeagatik. Hau ez da gertatzen, baina, Lizarragaren materialekin bakarrik, gainerako zutabeetan ere antzeko kasuak baitira. Diogun, bidenabar, inoiz (*) gisako izartxoak erabili dugula, halakoari datzekion hitza iradokia izan dela aditzera emateko.

Bestalde, hala Zabalegi eta Elkano zein Uritz eta Adoaingo prediku, eskuizkribu, ebanjelio eta doktrineta erabili ziren idazkera ezberdinak koa-droetako gainerako zutabeetan erabili dugun ohiko ortografiaren moldekoekin uztartzen saiatu gara, guztiz asmatu izanaz ziur ez bagaude ere.

Adoaingo zutabea prestatzerakoan erabili dugun iturri ia bakarra Patxi Ondarrak argitaratu *Escritos en vascuence del P. Esteban de Adoain (1808-1880)* izenburuko lana da. Zutabe honekin tentu handiz ibili gara, ezin baitzitekeen bestela; izan ere, Aita Estebanen izkribuen irakurketaz atera dugun ondorioa izan da ezen, beretan, lexikoan bereziki, haren sorterriko mintzamoldearekin lot daitekeen datu asko eta asko izan arren, lapurteraren eragina oso nabaria dela. Galbahetzen saiatu gara, bada, haien edukia, irina bailitzan, bata bestetik bereizteko asmoz, hori batzuetan erraza izan ez bazaigu ere.

Horregatik diogu kontu handiz aritu garela herri honetako laginak jasotzeko berariaz prestatu zutabera zer ekarri eta zer ez erabakitzerakoan, garbi geratu behar baita hurbilketa bat egiten saiatu garenez, ez dugula, ezin eman dezakegula ziurtzat zutabe horretan idatzi dugun guztia Adoaingoa berekoa izatea, horrela iruditu zaigula baizik. Ohar mordoska ederrik eginik gaude, gainera, zenbait zalantza agertuz edota zenbait iruzkin egiteko. Edozein kasutan ere, irakurle onberak barkatuko ahal digu horrela jokatzean izan dugun ausardia.

Hara, arestian, «iturri ia bakarra» idatzi izanaren arrazoia. Duela aspaldiko, 1977. urtean zehazki, Juan San Martin euskaltzain izanikoak oso lan jakingarria idatzi zuen aldizkari honexetan: *Vocabulario euskaro adicional del Padre Esteban de Adoain*. Ikerlari eibartarrak dioenaren arabera, lanaren amaieran ageri den hitz-sorta Aita Estebanen eskutikoa da, baina, dirudienez, hitzen artean hainbat iturri ezberdinetatik ekarritakoak ere badira, zeren, irakurtzen hasi-eta, *abostua* 'agosto', *agorra* 'septiembre', *agurea* 'viejo', *apia* 'nido' eta *arratoya* 'rata' bezalako hitzak, edota *cila* 'ombbligo', *farra* 'risa', *micheletea* 'mariposa', *narrua* 'cuero' eta *ocullua* 'cuadra' modukoak ikusteak, adibidez, mesfidantzara bultzatzen gaituzte; hots, gauza bat da hitzok fraide kaputxinoak berak bere eskuz idatzi eta zerrendara ekarriak izatea, eta bestea, halakoak, Urraulgoitin inoiz erabiliak izan diren frogatutzat eman ahal izatea, noiz-eta, gainera, halako batzuen kasuan, garbiki ezetz iruditzen zaigunean. Gauzak honela, zail bakarrik ez, ezinezkoa zaigu hitz-zerrenda horren jatorrian zer den Aita Estebanena eta zer ez zehaztea.

Iturri honetako datuak, beraz, besterik gabe erabiltzea arriskugarria iruditu zaigunez, zuhurtziaz aritu gara, era honetan jokatzuz: bertakoak ez direla iruditu zaizkigun hitzak alboan utzirik, Adoaingoak direla edo izan daitezkeela iruditu zaizkigunak hautatu ditugu, hitzen alboan, haietako bakoitzari atxikirik, *VE (Vocabulario euscaro)* idatziz: 'erle *VE*', adibidez. Irakurleak badaki, beraz, halako hitzak zuhurtasunez hartzeko modukoak direla.

Jose Mari Satrustegi euskaltzain arruazuarrak ere gure fraide kaputxinoaren lan bat ikertu zuen: *Adoaingo Esteban Agurgarriaren esku-iskribu bat delakoa*, hain zuzen ere. Testua eskaini ondoko ohar batzuetan, zera dio:

Aita Adoainen euskara Ipar aldekoa da gehien bat. Hiztegian eta joskeran ageri da. *Deliberacione fermu* erabiltzen du, *asmo sendo* edo erdal *propósito firme* itzultzeko. *Fite ezagutu cituen* dio beste nunbait, laster, berehala ezagutu zituela agertzera emateko. Begiratu batekin ikusten da.

Horrek ez du esan nahi txikitari etxeko euskararik ikasi ez zuenik, 1808an jaio zen, urriaren hamekan. Bere bizia aztertu duen aita Ildefonso Ziaurritzkoak dioen bezala, Adoainen euskara egiten zen orduan, gero laster galduko bazen ere. Ikasi zuen, beraz, gurasoen euskara.

Aurrerago: «Dirudienez ez zuen hizkuntzaz erabat jabetzeko astirik izan. 1880an hil zen Sanlukar Barramedakoan. Horrexegatik, behar bada bere hizkuntzan badira txikitatik gordetako punduren batzu. Sakonki begiratzeko gauza litzateke».

Bukaera aldean, jarraikoa: «Ez da nere asmoa iskribuaren barne azterketa sakona egitea, bide ematea baizik. Euskara galdua den herrialde baten lekuko gerta liteke zenbait hitz eta esamesetan».

Ez ditugu aurkezpen moduko lerro hauek bukatu nahi burutik zer pasa zaigun esan gabe, balizko zortzigarren zutabe bat aurkezteari dagokionez. Kontua da Patxi Ondarrak 1981ean argitaratu zuen *Primer sermón en vascuence navarro* (1729) izeneko lanak zuku dexente ematen duela prestatu ditugun materialekin leihatze, sermoia nongoa den ez jakinda ere. Arrazoi osoz mintzo da Ondarra, gure ustez, «*creemos que está redactado en el euskara calificado como dialecto alto navarro meridional...*» dioenean. Jakina, hitzak lehiatiletara ekarri eta aldamenekoekin erkatzea gauza erraza da eta oso bestelakoa zutabe hori zeinen eskuin edo ezker aldera kokatzea nongoa den jakin gabe eta, gainera, herriaren izena agertzeko leihatilatxo ezin izendaturik utzita.

Orduan otu zitzaigun, batean Zabalegi, bestean Elkanok, eta bestean... idatzi dugun bezala, (?? 1729) idaztea, bai, baina, berriro diogu, zeinen ezker ala eskuin aldean? sermoian agertzen diren datu batzuk ekialderantz begira daudela iruditzen baitzaigu: *ibli* hitz laburtua, *solo* erdal mailegua (Zaraitzuko eta Erronkariko ibarretan *bakarrik*-en ordean erabilia, baina Zabalegin ere aurkitzen duguna), *imini* (Aezkoan aditu duguna, Elkanoko Lizarragak bazerabilen ere), eta *bapedra* (< 'bat be(de)ra'tik bide dena), gutxienez; haatik, beste aldera begira, *orla* / *arla* hitz sinkopatu pareta dugu, Zabalegin, Elkanon, Ilurdotzen eta Arrietan bezala (azken bi herri hauetan bietako bat bakarrik). *Berla* hitz orobat laburtua, bide batez esanik, badugu halaber Elkanon eta Ilurdotzen, baina ez Zabalegin.

Erakusletan *ebek* / *gebek*, biak ditugu, Elkanoko bi zutabeetan bezala; Zabalegin, *ebek* bakarrik. Eta maileguetan *ofratu* hitz bakana dakusagu sermoi honetan *ofrezitu*-rekin batera, Elkanon ere badena, baina Adoainen, azken honekin batera, baita *ofreitu* ere, bi aldiz gainera. Balizko zortzigarren zutabe honen ametsa, honenbestez, zailtasunak baino areago ezintasunak kontuan hartuta, ezerezean geratu da, baina iruzkintxo bat egiteko adina zio eman digu behintzat.

Jakina da prestatu dugun zerrenda luze samarrean badela hitz-mordoa, batere ez gutxiesgarria, esparru honetako mugetatik kanpora ere aurki daitekeena, zenbait aski urrun, are Nafarroatik at ere.

Besterik gabe, bada, saioari hasiera emateko datuak kokatu ditugun koardoretara joko dugu, erkaketarako, batzuetan –behar adina daturik eskuratu ez dugunean–, pare bat herriren artekoak bakarrik baliatu ditugula esanik.

Zabalegi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	abar, arrama; azal ¹	arrama; azal	abar, adar; azal		abar, adar; azal	
	abe; etle; erlategi ²	abe; etle	abe; etle; erleuntzi		etle; naza	etleVE
	abil, trebe, entregu, ausari ³		abil, abildede		trebe, entregu	abil
	abisu, abisatu, gasigatu		abisu, abixu, abisetu		abisatu	abisu, abiso
	aborrezitu		aborrezitu			gorrotatu VE
	ab(e)rats, ondasun / pobre ⁴	abrats / pobre	abrats / pobre	pobre, eskas	abrats, ondasun / pobre	aberats, abrats / pobre
	abre;azienda ⁵	abre;azienda	abre;azienda	azienda	abre;azienda	abere
explikatu	adiarazi, esplikatu			esplikatu		esplikatu
mandamentu, pensamentu	adimentu, barkamentu ⁶		momentu, pensamentu	adimentu, man(d)amentu	mementu, pensamentu	adimentu, manamendu
denbora	adin; denbora, tenore ⁷	denbora	adin; denbora	adin; denbora	adin; denbora; tenore	denbora

¹ Lehenengo lerro honetan jasozten diren hitzak gaztelaniazko 'rama' eta 'corteza' dira. *Arrama* gisako mailegua geuk ere bildu dugu, baina Elkanotik mendealdera bakarrik: Ezkabarreko Anotzen, Txulapaingo Usin, Gulibarko Larunben eta Sakanako zazpi herritan. Hitzren erdarazko esanahia adieraztea egokitzat jo dugunean egin dugu hala.

² Lerro honetan: 'tábaneo', 'abeja' eta 'colmena'. Hona Elkanoko adibidea: *ceren ezi abeaturic idiac, ta goldea gainetic passaturic, il ustezué án (JMesb)*. Hona Ilurdozkoa: *ábeak, ábëak, pikëtu díi, idicé eta... [hau, orduan] lásterká yoán dá exéna*. Arrietan *naza 'colmena'*, omen.

³ Leihatila honetan 'hábil, valiente, decidido, osado, capaz...' moduko esanahiak ditugu. Elkanon *habilidadde* ere bai (DCC), Ilurdotzen antzera. Arrietako laguna mintzo: *áú dá... buliéntis; áni(v)z... entrégua edo... buliénte*.

⁴ Leihatila honetan: 'rico', 'riqueza' eta 'pobre'. Lizarragak, inoiz, *probe* erabili zuen.

⁵ Aita Policarpo mintzo (FLV, 29): *Azienda* - ganado (vacuno, lanar, etc.; el caballar más bien *abere*). Ilurdotzen, iritzi honekin bat, *ábre = caballería* eman ziguten. Adoingo *abere* hitza sinkopatu gabe dugu; agian Aita Estebanek era jaso islatu nahi izan zuen.

⁶ Adoainen izan ezik, saio honek barne hartzen duen eremuan *-mentu* bukaera askoz ere ugariagoa da *-mendu* gisakoa baino. Hona Elkanoko zenbait hitz: *adimentu, barkamentu, entdamentu, esaumentu, fundamentu, juramentu... Haatik, mandamentu / manamentu / manamentu / manamentu* ere bada, adibidez. Zabalegin *-mentu* bukaera dugu beti: *atruimentu, consentimentu, entendimentu, mandamentu eta pensamentu*. Ilurdotzen *momentu, mobimentu eta pensamentu*. Urtzen *adimentu, entendimentu, juramentu, mandamentu / manamentu, mementu / momentu, pensamentu, sakramentu, sentimentu...* baina *barkamentu*. Arrietan *fundamentu, mandamentu, mementu eta pensamentu*. Adoingo izkribuetan, non lapurteraren eragina nabaria den, kontua nahasiago azaltzen da: *adimentu, konsentimentu eta momentu*, baina *barkamentu, entdamentu, enterramentu, manamentu, mereximentu, pensamentu, sakramentu* edota *urrikimentu*, besterik.

⁷ Lerroan; 'edad' eta 'tiempo, ocasión'. Lizarragaren lanetan *garai* ere bai: *Eguidáz bai eguidáz ernaten-dicité, ellegatu-déla garáyá (SJ-V-25)*. Arrietan, gáimera, *denbra* gisako laburketa, Zaraitzuko ibarrean bezala: *orái, denbrá orrekín, etxaitéla juan*.

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdozt 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	adina, dina ⁸		adine, arine			
aditu	aditu, aitu; entzun ⁹	aitu; entzun	aitu; entzun	aitu; entzun	aitu	aditu; entzun VE
eginzale; predikazale	adizale: salbazale ¹⁰		eroszale	kriazale; salba(t)zale	nastazale; iltzale; langile	aditzale; salbatzaille
adizkire	adizkide, adiskide ¹¹	aixkide	aizkide, aixkide		aizkide, aixkide	adiskide
ago	ageri, agerri, agertu		ageri, agertu	ageri (edo) agertu ¹²	agertu, aertu, agartu	ageri, agertu
	ago; erpain	ago; erpain	ago; erpain	ago	ago, abo; erpain	ao
	agotz; agoztegi ¹³	agotz	agotz; agoztegi		agotz, aotz; aoztegi	
agur, saluzazio	agur, adio, saluzazio ¹⁴		agur	saludatu	adio, alo	agur, adio, saluratu
	aide, familia	aide	familie		aide, familia, aurride	aide, familia
ain; bertze; aimbetze	ain; bertze; aimbetze ¹⁵	bertze; aimbetze	ain; bertze; aimbetze	ain; bertze; aimbetze	ain; bertze; aimbetze	ain; bertze; aimbetze
ain relaxaturik ezi...	ain nola balego aurdun		ain onak anaiaik bezala	ain berdaderoki nola...		ain ederra nola...
	aingiru, aingeru	angiru		aingiru, angiru	aingiru	aingeru
fazilidade	aisa, aise, erraz, fazil ¹⁶	erraz	aise, aise	aisa, fazilki	aisa, aise	erraz
aita	aita; aitaguea	aita	aita; aitaguea	aita; aitaguea	aita, aitta; aitaguea	aita; gureaita ¹⁷

⁸ Leihatila honetan 'tanto como' edo dugu. Lizarragak, halaber, *adiña / diña* era bustiak erabili zituen.

⁹ Lizarragaren lanetan *aditu* 'oir' edota 'entender' baldin bada ere, *entzun* / *entzun* mezarekin loturik dakusagu: *Lembicicoa, jai eta igandeeñ méza ósoa enzútea (Dotr-1)*. Ilurdozen, ordea, 'gauza bat aditu' edota 'meza aditu', berdin eman ziguten: *igendian aitzén dat méza*, baina azken honetarako 'entzun' ere bai: *limixko gñuzéi? mezára, mezára juán, mezárara [sic]... enzú-terá, juan*. Uritzko doktrinan, *mezari* loturiko kasuan, *entzun* eta *aitu*, biak, eta Adoaingo VE delakoan, *entzun* 'escuchar' a otros. Arrietan, inoiz –oso bakana izan arren–, *aitu* ere bai.

¹⁰ Elkanon, *-zale* bukaerako hitz asko xamar dakusagu: *ebaszale, eginzale, emanzale, lagunzale eta manazale*, besteak beste.

¹¹ Lizarragaren lanetan *aixkide*, *aixkide*, *adizkire* eta *aiskire* ere bai.

¹² Uritzko lagina *ageritzen* batetik atera dugu; ez dakigu, beraz, partizipiorako zein era hautatuko zuen Elizalde. Arrietan, bestalde, *suertiatu* ere bai.

¹³ Lerro honetan: 'paja' eta 'pajar'. Arrietan *auztegi* ere bai.

¹⁴ Elkanon, *diosal / diosale* ere bai. Ilurdozen, *agur* otoiiz ezagun baten restuinguruan soilik. Arrietako berriemateak, zeregin honetarako, *abe* erabili zuen: *Abe Maria*.

¹⁵ Lizarragaren lanetan, halaber, *bertze* eta *aimbetze* maiz ikusten dira eta baita, behin bederen, *beste* ere: *ta juntacó bestéqui consorteát betico (Irat)*. Zabalegiko predikuan *bertze*, *beste* eta *bezte* gisako aldaerak, hala nola *aimbetze*, agertzen dira inoiz. Arrietan, *aimbetze* ere bai. Adoainen, *beste* / *aimbete* ere bai, inguru hauetarako zein Lapurdirako bixiak diruditenak.

¹⁶ Elkanon *aise* askoz ere gutxiagotan *aisa* baino. Beste muturrean, Adoaingo *erraz* horren arrastorik ez dugu sekula aditu Artzibarren.

¹⁷ Litekeena da Adoaingo *gureaita* hori Aita Estebanek Lapurdi aldean ikasi izana: *Agur Maria eta Gure aita bacochan irabaztendire eun egumen indulgencia*.

Zabalegi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	aituna; amiña ¹⁸	aguelo; aguela	abuelo; abuela		apitxi; amixi	
	aize, aizeratu ¹⁹	aize	aize; aizeru		aize, aizeratu	aizeman VE
	aizina; dibertitu ²⁰		dibertitu		aizna	libertitu
akar egin	akar in, mokoka ²¹	akar in			mokoka cin	
al izan	al (izan); egin, inal ²²		al izan	inal	al izan	al (izan)
	al guzia		al guzie	inal guziak		ahal guzia
alarik ere	ala ere, alare	alare			alare	ala ere
	alaxe, uraxe, antxe ²³		gutixe, gaizkixe		alaxe, o(f)laxe, antxe	
ala nola erran zuen	ala nola ofrezitu zuen			ala nola iten baitute	ala nola barkatzen dugun	ala nola egin zituen
	alaber, gisa berean			alaber	gisa berean	alaber, gisa berean
padezitu	alaitu, gozatu / padezitu ²⁴		alegratu	gozatu / padezitu		gozatu, alegratu / sufritu
meza	aldare; meza		aldare; meza	aldare; meza, mesa	aldare; meza	aldare; meza

¹⁸ Lerroan 'abuelo' eta 'abuela'. Lizarragak, bestalde, *aitabuxi* eta *amabuxi* moduko hitzak erabili zituen 'padrino' eta 'madrina' adierazteko; Larrainzarek *aitabuxa* eta *amabuxa*. Arrietan, leihatilako ez gainera, *aitaxi* / *amaxi* ere eman zituzten. Adoainen, azkenik, *aitabuchia*, *padrino del bautizo* ageri da Juan San Martinen VE delakoan.

¹⁹ Lerroan: 'viento' eta 'aventar'. Elkanon, *aiceratucoduéla bere eulcia, ta gránoac bere granerórá...* (DCC), eta Arrietan ere antzera. Ilurdozko *aizettu*, baina, 'airear' da, eta Adoaingo *aizeman* 'soplar'.

²⁰ *Aizina* hitza Azkuek *Urteco igande guztietaraco platicac edo izaldiac* liburutik hartu zuen: *ez dut aizinaik* ('no tengo tiempo'), baina 'ocio'tzat ere uler daiteke. Arrietako berrie-maileak, esaterako, 'pasatiempo' esanahiaz-edo eman zizulakoan gaude, laburbilketa eginda emanik ere: *or, aizná al izána, bausá lan...* *zenbait egintako*. Adoaingo leihatilara ekarri duguna *libertimenduak* hitzetik ateratu dugu, Iparraldekoa, antza; *diversionic* ere bada, halere.

²¹ Lehatila honetan: 'reñir' eta 'reprimenda, pelea' *acárr eguitea esá béti precisso* (Serm-1). Eta Zabalegin ere antzera: *acar eguincio Jangoycoac benac*. Arrietan, berriz, zera bildu genuen: *amák ségídoac mokokoan, dsi, mokókan... reñir, a reprinter*.

²² Lerroan: 'poder' eta 'esfuerzo, empeño, conato'. *Baña moduric obéna dá mantenitza arina garbí edérr libre becatuetáic al gucían* (DCC). Arrietan *al* hau zernahi aditzarekin daku-sagu: *joaten al gara edota iten al dauzu*, adibidez, baina ahalera irudikatzeke besterik ere bada: *ibil daíke edota eraxket yan*, adibidez. Ilurdotzen, *al delakoarekin, al ginduen bezala* dugu bildurik, eta, ahalera beste moduan irudikatzeke, *izen daíke edota yan (t)zaket*. Adoaingo datuetan, azkenik, *ahal dakusagu* idatzirik. Urizko lagina bestelakoa da: *Ansiatiquin itendutena* [sic] *vere inalguciac*.

²³ Elkanon eta Arrietan *-xe* intentsio gisa ikusten dugu eta Ilurdotzen xumegarritzat; hona adibidea: *dá gáizki, gáizkixe itéko, es un poco difícil de hacer*.

²⁴ Elkanoko Lizarragaren izkribuetan *alegratu* ere bai, eta Adoaingoetan *pozkarriatu*; hitz hau, baina, inguru hauetakoa izan ote da?

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdoz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
mudatu	aldatu, trukatu, mudatu	aldatu, trukatu	kambiatu, kambietu	mudatu	aldatu, kambiatu	kambiatu
aldean	alde, aldean, aldera	alde, aldera	alde, aldera	aldean	alde, aldean, aldera	alde, aldean, alderat
	alderen alde				aldez alde	
aldi	aldi, okasio, eskaída ²⁵	aldi	aldi	aldi, okasio	aldi, okasio	aldi, bider, okasione
aniz aldiz, anis aldiz	aldi batez; aniz aldiz ²⁶		aldi anitz	anis aldiz; aldi guziaz	aldi batez; anitz aldi	aldi batean; mila aldiz
	alegre, kontent / triste ²⁷		kontent		alegera, kontent(t)	alegere / triste
	alfer, aufer, nagí ²⁸		alfer		aufer	alfer, nagí
	alke, alkaizun, alketu ²⁹	alke, alketu	alke, alketu	alke	alke, alkezun, alketu	alke, alketu
	alki, katedra, silla, eskaña		alki, sille, eskaña		alki, katedra, yarralki ³⁰	
	almozur, almorzatu	aldamortzu, almorzatu	almort(z)u, almorzatu		almortzu, almorzatu ³¹	
alor	alor; soro; larre ³²	alor; soro; untze	alor; pentze; dermio		alor, alur; soro; sario	
	altxatu ³³	altxatu, ortzi	altxatu, altxatu		altxatu	altxatu
	altxur; aizkora; laia ³⁴	altxur; aizkora	altxur; aizkora; laya		altxur, altxur; aizkora	

²⁵ *Eskaída* hitz bitxiaren lagina jarraiko esaldian: *Ayéc esquinudióte oguéi ta amarr erreá; eta guerosie alcina zebila escaída onbáten billa, entregátzeco Jesus óna (JMcsb)*. Adoaingo sermoi batean ageri den *bider* hori, berriz, Lapurdi aldean ikasiko zuen ziurrenik Aita Estebanek, gainerako herrietan ez baita agertzen.

²⁶ Lizarragaren lanetan *asko aldiz* ere bai.

²⁷ Elkanon, *botzik* ere bai. Ilurdozko emaitza 'lo haré con gusto' erdal galderari emaniko erantzunetik atera dugu: *inen dít kontént; Arrietan gístorá inéunt*. Herri honetan, bestalde, *kontesko* ere bai, xumegarria eta guzti. Adoainen, ordea, 'kontent' hitza ez dugu ikusten, baina bai *contentatzen*.

²⁸ Aita Policarpo mintzo: *Aufer - ocioso [...]*, de ordinario *alfer* (FLV, 29). Adoaingo materialeran, berriz, *nagiasun* hitza dugu –bertatik hartu dugu leihatilan kokatu *nagí* hori–, Elkanon ere agertzen dena.

²⁹ Lerroan: 'vergüenza' eta 'avergonzarse'. Arrietan, honela: *ník äimbérze... zorra banú, ilén nitzaké... álke, àlkezínes*.

³⁰ Arrietan *álki* 'banco', *kátedra* 'silla' eta *yarrálki* 'asiento', omen. Ilurdozko berriemailearentzat, aldiz, *álki bet* 'banco pequeño, sin respaldó' zen.

³¹ Arrietan *alamorzu* ere bai (EL), eta baita *amarretako* ere.

³² Elkanoko leihatila honetan *soro*, *larre* gazt. 'erial, campo sin labrar' da, eta herri bereko Larrainzarentzat, *soto* eta *untze* 'prado, praderá'. Ilurdozten *penize* 'prado' da.

³³ *Altxatu* zera da: 1) 'esconder': *Jesus alchatu-cé, ta ama-cé temploc* (SJ-VIII-59); eta, 2) 'guardar': *álcha ceure espata-gó; bere máguian* (SJ-XVIII-11). Adoaingo izkribuetan, honetaz gainera, *gazt.* 'levantar = izar' eta are 'levantar = rebelar' edo antzeko zerbit ere bada, Aita Estebanek Lapurdi aldean ikasirik, antza.

³⁴ Elkanoko leihatila honetan *alxur* eta *aixkura* ere bai. Arrietakoan *aixkura* ere bai, bestea baino txikiagoa, ziurrenik. *Laiá*, jakina denez, lurra iraultzeko nekazal erraminta da.

Zabalégi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
alzin	alzin, aizin, aurre ³⁵ alzinatu	alzin, aizin, aurre	alzin alzinatu	alzin, aizen	alzin, alxin alzinatu	alzin, aizin aiztinatu VE
ama	ama; arbea, aizpa ama birjina, birjiña amain; gizonain ³⁷ amairu, amiru ameka; amabortz ³⁸ amets, ametsetan	ama; arbea amabirjin gizonain; ilargiain amiru ameka; amabortz amets	ama; arbea ama berjine amain; gizonain amairu ameka amets in, amesketa	ama ama birjina amain; osasunain ameka	ama; arbea, aizpa ama berjina ³⁶ amain; bordain amairu ameka amesketan aitu	ama ama birjina gizonaren; sainduren amirur amabortz
amorio	amorio / gorroto anaia bat, bi anaia andi, aundi, larri ³⁹ andira andik fite ⁴⁰	anaya aundi	anai bet, anaia, anaie aundi aundire; txikite	amorio andi	anaia, anaia, anaia andi, aundi, larri, gatz txipira; gorriira; xurira andik orduko	amorio, amodio / gorroto anaia andi, larri andi, larri
gizon	andre; gizon; senar	andre; gizon; senar	andre; gizon; senar	andre; gizon	andre; gizon; senar	andre; gizon; senar
animale	animale; zamari	animale	animale; zamari		animale; zamari	animale

³⁵ Lerro honetan: gazt. 'delante', eta jarraikoan, 'adelantar'.

³⁶ Arrietan, inoiz, *Ama berxina*, eta Ilurdotzen *Ama berkine*.

³⁷ Lerro honetan, singularrean den hitz batek genitiboa hartzean gauzatzen duen prozesua ikusgai dugu, *-aren* bukaerako bokalarreko *-r-* erori ondoren diptongazioa suertatzen baita. Adoain da honetan salbuespena, ulertzen errazak diren zioengatik.

³⁸ *Amabortz* ere bai Elkanoko Lizarragarengan. Adoaingo datuetan *amabost* ere bai; Lapurdin bereganaturiko aldaera ote? Bixia da, lurralde honetan era hau ez baita batere ohikoa, gure ustez.

³⁹ Elkanoko Lizarragaren lanetan *tzar* ere bai, baina hau gazt. 'malò' ere izan daiteke. Adoaingo izkribuetan *larri* 'grave' esanahiaz dakusagu (Elkanon ere badena, bestalde): *Anditucoditu alde guctic arimaren culpa larri guctiac*. Arrietan, *gatz* ere bai, 'grande, enorme', alegia: *Arriizeko dá... zém guizak dirén!*

⁴⁰ Elkanoko *andik fite* gazt. 'de allí a poco' edo da (1729ko sermoian ere horrela). Arrietako berriemileak, ez guztuz berdin baina, *andik orduko* eta *andik bertzeke* (*de una pa otra*, hark berak itzuli zuenez) eman zigun.

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdoz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
aniz, anis	a(u)nitiz, agitz, lazki ⁴¹	auniz, lazki	a(u)nitiz, aundiz, gorki	anitz, anis, laski	a(u)nitiz, ausarki	anitz
	antxume; auntz; aket	auntxume; auntz; aket	antxume; auntz; aket		antxume; auntz; aket	
	apa, apatu; besarka ⁴²		apa		apa; besarka	
	apal, apaldu ⁴³	apal	apal, apaldu		apaldu	apaldu
	apez; fraile; alkate	apez	apez; alkate	sazerdote	apez; fraile; alkate	apez
	ar; txinxarac ⁴⁴	ar; txinxare	ar; txintzerie		ar ⁴⁵ ; txintzare	ar
	aragi; ezur	aragi; ezur	aragi; ezurre ⁴⁵	aragi	aragi; aragi; ezurra	
	arbole; zain; tronku ⁴⁶	arbole; zain; tronko	arbole; zain	zain	arbole; zain; trunku	arbola
	ardantze	ardantze	ardantze; alkitze		ardantza; alkitze	ardantza VE
ardi	ardantze; ari	ardi; artzantz; ari	ardi; artzantz; ari		ardi; azan(t)z; ari ⁴⁸	ardi
	ardo; ozpín; kupela	ardo; ozpín; kupela ⁴⁹	ardo; ozpín; kupela	ardo	ardo; ozpín	ozpín VE
	arestian, aixtean ⁵⁰		aestian, aixtian		aixtian	

⁴¹ Elkanoko Lizarragaren lanetan *asko*, *ausarki*... ere bai (hau, halaber, 'osadamente, atrevidamente' izan daiteke), eta Ilurdotzen, *aundiz*, *aundiz eta asko*, azken hau *eskerrik asko* esapide soilean bildu badugu ere. Arrietan, *aniz / anix* –eta aldi batez *anitz*, Erroñkaribar aldean bezala– hala nola *auserki*.

⁴² Leihatila honetan: 'beso', 'besar' eta 'abrazo'. Elkanon, *apa eman* ere bai. Ilurdotzen adibidea bildu genuen: *emán izió ápa bat kopétan*. Arrietan ere *apa* dugu, baina handik hurbil, Hiñberri herrian, *póttá eman ziguten*, mugatua.

⁴³ Elkanon, *apaldu* 'humillarse, rebajarse' dugu; hona adibidea: *Beru beár-da gorutu, baña ni apáldu* (SJ-III-30); *apal*, gainera, 'bajo (de estatura, etc.)' ere bada, Aita Policarporen araberan (FLV, 29). Adoainen, 'inclinarse' edo: *burua apalduz erran beardiogu Agur Maria* (Serm-4). Arrietan, aldiz, 'rebajar (el fuego)' modura bildu genuen, edo hala uste dugu, behintzat: *Bai, apáldu, déna, sía daéla bétti*.

⁴⁴ Lerroan 'gusano' eta 'lombritz'. Ilurdozko *txintzerie* horrek mugaturik dirudi.

⁴⁵ Aldi honetan Ilurdotzen bilduriko hitz ezagunak mugaturik eman ditugu, Arrietan eman zizkigutenekiko ezberdintasuna agerian ezartzeko.

⁴⁶ Lizarragak *arbola* aldaera ere erabili zuen, eta *zain-er* gainera, baita *zan* ere, 'raíz', alegia. Ilurdotzen bilduriko *azaña* bitxia iruditzen zaigu eta, gainera, bukaera mugatuari begira, *-añe* itxaron behar zelakoan gaude.

⁴⁷ Lerroan: 'víña' eta 'podadera'. 'Alkitz' (edo 'alkitze') izeneko eramintari dagokionez, Aita Policarpok *un apero de labranza: podadera* gisa zehaztu zuen (FLV, 29). Gure egunotan, ardatntzeak desagertu diren zenbait lekutan, lanabes hori zertia hil eta, goitik beheraino irekitzeko erabili ohi da.

⁴⁸ Arrietako lagunak zehaztu zuen: *azán(t)za* 'el mardano' ('ahari aita', alegia), eta *aria* 'el carnero'.

⁴⁹ Elkanoko Larrainzarri bilduriko ekaletan, *kupela* = *tonneau* badakusagu ere ('tonel', alegia), Ilurdotzen, hori bera, 'barrica' dela esan ziguten, eta *kupue* 'un cubo grande'.

⁵⁰ *Arestian* Aita Patxi Ondarrak, Azkueren datuetan oinarriturik, prestatu zuen lanean ageri da (FLV, 34).

Zabalegi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdoz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
argi	argi; mendortz / itzal ⁵¹	argi; mendortz / itzal	argi / itzel	argi	argi; argialde / itzal	argi / itzal
argitu	argitu / ilundu	argitu	argitu / ilundu	argi; eman	argitu / ilundu, ilundu	argitu
	ari, ai (izan)		ari, ai (izan)		ari, ai (izan), aitu	ari (izan)
	arima, anima	arima		arima, anima	anima	arima
	arin, zalui / leno	arin, zalui	arin, zalui / erreposki ⁵²	arin, arinki	arin, zalui / erreposki	arin, zalui
	arkakuso; zorri; bartz ⁵³	arkakuso; zorri; bartz	kukuso; zorri; bartz		kukusa; zorri; bartz	arkakuso VE
	arrai; amuarrain; aingira ⁵⁴	arrai; amurrain; angila	amorrain; angile		arrai, arrain	arrai
	arrantza, arran(t)zari ⁵⁵		arrantza, arrantzatu		arrantzale, arrantzale	arrantzale
	arrapatu	arrapatu	arrapatu, apertu		arrapatu	arrapatu VE
	arra ⁵⁶		arron	arras	arras, arron, arront	arras
	arratsalde; arrats	arratsalde; arrats	arratsalde, arrats	arrats	arratsalde; arrats	arratsalde; arrats
	arrausi, arrausia in ⁵⁷		erausi, erausi in		arrosi, arrosia in	
	arrautze; kafia, kabia ⁵⁸	arrautze; kafi	arrotze; kafe	arrotze	arrotze, arrotze; kafia	

⁵¹ Lerroan: 'luz' eta 'autora', alde batetik, eta 'sombra', bestetik. Elkanoko Lizarragaren izkribuetan dakusagun *argiaste* bat, berriz (gazt. 'amanecer'), *argialde* dugu Arrietan: *Géno, artséan, edérki ofaldú... argialdéra etséna*.

⁵² Lerroan 'ágil, ligero' eta 'despacio, reposadamente'. Ilurdozen, *reposki* eta *maniso* ere bai. Adoingo *arin* 'leve' izatera dator: *bertuterik chiquien ta pecatu arinenac ere esaminatu... Herri honetako zalui hitza, bestalde –Lhanderen hiztegian, zalui nafar-lapurtar gisa dugu, eta zalui, lapurtar modura–, zaluiasun batetik hartu dugu.*

⁵³ Lerroan: 'pulga', 'piojo' eta 'liendre'. Lizarragaren izkribuetan, *kukuso* ere bai. Duela 30 urte inguru datu bila egoniko lekuetan, *arkakuso* Sakana aldean eta ondoko Gulibarren aditu genuen soilik, eta, ondoko Txulapaundik ekialderantz *kukuso* besterik ez. Ondarrak prestatu lanean, haatik, *arkakuso* ez da Elkanon bakarrik ageri, Garesen, Oltzan eta Goñibarren ere bai baiziki. Litekeena ote, *arkakuso* hitza hegoaldeetik, Elkanoko aldaeraren barrena, Adoaineraino iritsia izana? Honen hurbileko Zaratzaun, dena dela, *kukuso* besterik ez dugu aditu.

⁵⁴ Leihatila honetan: 'pez', 'trucha' eta 'anguila'. Arrietan bildu erantzunaren asmoan 'trucha' dela uste dugu, zentzu zabalean bada ere.

⁵⁵ Elkanoko leihatila honetan 'pesca' (*arrantza / arranzu* ere bai) eta 'pescador' dugu. Eta *arrantzatu* 'pescar' ere badakusagu Lizarragaren izkribuetan, Ilurdozen bildu bezala.

⁵⁶ Hitz hau 'muy' esanahiaz ekarri dugu hona, baina 'raso' ere izan daiteke. Ilurdozko eta Arrietako zutabetan kokatu ditugun *arron / arront* hontiek, baina, bestelako nabarduraren bat izan dezaketela uste dugu, berriemaile arrietarrak, halako batean, zera esan baitzuen: *mozkörtzen da arron, con frecuencia*.

⁵⁷ Lerroan 'bostezo' eta 'bostezar'. Ilurdozko berriemaileak honela eman zigun: *eráusi iten du suete bostezar* 'eta. Arrietakoak, *gizónak arrósia iten du 'el hombre bosteza*'.

⁵⁸ Lerroan: 'huevo' eta 'nido'. Lizarragak idatzi lanetan -a organiko garbia dugu: *enamaten diote zarrei gasteek kabiana alimentua* (Aita Policarpo, *FLV*, 31). Eta, Arrietan ere berdín: *kafia batean*.

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
arrazio	arrazio ⁵⁹		arrazio	arrazioñik	arrazioin, arrazioa	arrazioin
	arri; arlauza ⁶⁰	arri	arri; planxa?		arri; lauza, loza	arri
	arrikaldi; arrikaldi ⁶¹		arrikoaldi		arrikoaldiko	azotakaldi
	arriko, perill, peligr ⁶²			peligr		irrisku, perill
	arritu	arritu	estrañatu		arritu	arritu, estonatu ⁶³
	arte; ezkur ⁶⁴	arte; ezkur			ezkur	
artio	artean, eritean, eretik ⁶⁵	eritean, eretik	eritean	artean, eritean, eretik	artean, eritean, eretik	artean
	arteo, biarteo ⁶⁶	artio	arteo, artio		arteo, artio	arteo, arte
artu / utzi	artu / utzi, usi	artu	artu / utzi	artu / utzi ⁶⁷	artu / utzi	artu / utzi
	artzai, arzai; moxale ⁶⁸	artzai; moxale	artzai; moxale		artzai, artzain; moxale	artzain

⁵⁹ Lerro honetan 'razón' dugu. Ilurdotzko berriemalleak hitz bera erabili zuten behin, baina 'ración' esanahiaz. Partitiboan dugun Uritzkoak, berriz, Arrietan bildu *arrazoin* bezalako hitzetik aterata dirudi.

⁶⁰ Leihatila honetako *arri* hori, ohikoaz gainera, 'pedrisco' ere izan liteke, nahiz honetarako *arreauntzi* ere baden (Aita Policarpo, *FLV*, 29). Alboko hitza dela-eta, berriz, hona adibidea: *Baña astearen lembicico egunedn, Maria Magdalena joán-ce goicic, arguitu-gabe oráño, monumenturá: ta icusi-zaé arlauza quenduric monumentuic* (SJ-XX-1). Beste eskuizkriburen batean, halere, *arri-lauza* idatzi zuten Lizarragak.

⁶¹ Hitz beraren bi aldaerok erabili zituen Lizarragak; hona lagin bat: *arc lembicoric tim-bézo arrucáldia* (SJ-VIII-7). Arrietan duguna 'harrikaldi' izan liteke, bai-eta Ilurdotzen bilurikoa ere, zertxobait desituraturik biak.

⁶² Lizarragaren idazkietan *arrixko* ere bai. Elkano eta Adoainen dugun *peril* hitza frantses mailegua da, Iparraldean oso zabaldua. Lizarraga Elkanokoak, gainera, honen aldaera erabili zuten inoiz: *Está pellic* (Serm-4).

⁶³ Adoaingo *estonatu* hitza ere frantses mailegua da ('étonner, surprendre, admirer'), Aita Estebanek Lapurdi aldean bereganatua ziurrenik, pentsatzekoa denez.

⁶⁴ Lerro honetan: 'encimo' eta 'bellota'. Lehen hitza mugaturik dakusagu Lizarragaren izkribu batean: *biloa enedaturic arteabáten arraman* (Serm-1).

⁶⁵ Lizarragaren izkribuetan *artean* ohikoa izan ez arren, Uritzko doktrinaren agertzen da: *vicidaicen elcarren artean*, nahiz beste pasarte batean *eritean* dakusagun: *vedeicatua andre gucien eritean*, alegia.

⁶⁶ Elkanoko Lizarragaren lanetan *bitarte* / *bitartean* ere bai. Adoainen *bizkitartean*, behin baino gehiagotan gainera, Lapurdi aldean beretua, antza. Ilurdotzen esapidea dugu: *zabúu ártio = hasta pronta*. Alabaina, *i edo u* baten ondotik, *e* adi daiteke: *ilundu értio*.

⁶⁷ Uritzko leihatilan *uzzi* idatzi badugu ere, bertako eskuizkribuan *usten uaitru* dakusagu, alde batetik, eta *placenc ustennunc...* bestetik. Arrietako ekaietan eta Adoaingo izkribuetan ere *usten* hori bera dakusagu, partuzipioa 'utzi' izan arren.

⁶⁸ Leihatila honetan 'pastor' (*alsai* ere bai) eta 'esquilador'; hau honela: *ala nola árdia ilizera damaitéan, ta axíria mochálein escupéan* (Serm-5). Arrietan, *artizan* ere bai, bakan bada ere.

Zabalégi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdoz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
as, as artu	as, as eman / ito	ats, as artu / ito	ito		ats / ito	ats, atx eman
asi / konkluitu	asarre, asarratu ⁶⁹ asi / bulkatu, akabatu	asaratu asi / akabatu	asarre, asarratu, enfadatu asi / akabatu, akatu	asi, abiatu / akabatu ⁷⁰	asarratu, enfadatu asi, abiatu / akabatu ⁷⁰	asarratu, asaldatu asi, abiatu / akabatu
aski	aski; franko; sobra ⁷¹ asoz, arroitu, zalaparta ⁷²	aski	aski; sobra arroitu	aski; franko	aski; franko; sobra asots, arroitu, zalaparta	aski; sobra arroitu VE
	aspertu, ase, asetu ⁷³ astatu ⁷⁴			aspertu	ase, ascaldi azaaatu, arzatu, arzatu	aspertu
	aste; ilabete	aste; ilabete	aste; ilabete, ilbete		aste; ilabete, ilbete	aste; ilabete
asto	asto; mando; mula	asto; mando; mula	asto; mando; mula		asto; mando	
atari	atari; gil(t)za; zerroju ⁷⁵	atari; gil(t)za; burrillo	atari; gil(t)ze; furrillo		atari; gil(t)za; furrillo	ate, borta; gako
	atorra; txupon, xupon ⁷⁶	ator; txipon	atorra; zipon		atorra; txipon	atorra VE
atrebimantu	atrebimantu				mentuatu	

⁶⁹ Lizarragaren izkribuetan *enfadatu* eta *koleratu* ere bai: *coleratuze bercea ta botazue len becála* (Serm-1). Ilurdozten ere antzera: *gizon ire koleratzen (t)zé*.

⁷⁰ Arrietan eta Adoainen *fnitu* ere bai, leku-faltagatik tarretatu ez duguna. Arrietan, halaber, *akatu* era laburtua.

⁷¹ Lerroan: 'bastante, suficiente', 'abundante' eta 'demasiado', gutxi-gorabehera.

⁷² *Azozz* (*asots* ere bai) 'ruído, estrépito' edo antzeko zerbit bide zen Lizarragarentzat: *Era aituric gendetzearen asótza galdeguinze cer cén* (Serm-3). Ondarrak, Azkuener hiztegiak jaso-eta, gazt. 'bulla' dela dio (FLV, 34). Arrietan eman zigutena ere antzekoa da: *ta, elima, karróa iten tsuá... asósa, las ruedas: brnon-rnon-rron!... elárran!...* Herri honetako berriemaiela, bide batez esanda, *arroitu* / *garroitu* aldaerak eman zizkigun.

⁷³ Elkano *aspertu* 'satisfacerse, saciarse' da eta ate 'hasiari, aburrir' ere (DCC). Uritzen, bi esanahi horietatik lehena dugu: *Bienabenturatuac direnac justicias deseyu chusena tuenac, cein ayez izaindre aspernuac*. Arrietako *asealdi*, aldiz, 'hartazgo' izatera dator: *asealdi bat ederra in biar dugú tr'eztú... bétze laínik... biárrrik*.

⁷⁴ *Astatu* gazt. 'palpar' edota 'acertar' izan daiteke, kasuen arabera. Ilurdozen eta Arrietan bigarren esanhiarekin eman ziguten. Hona Ilurdozko lagina: *yarrúkiez, énu-, énuac... azatá-tzen! = acertar a hablar*. Hona Arrietakoa: *tol ipúrdia parátiko diát, ezinák... azatáatzen, tiro at, tiro atéz*. Arrietako *arzzatu* / *arzzatu* aldaeretan, bestalde, errotaismo antzeko zerbit ikusten usre dugu.

⁷⁵ Lerro honetan: 'puerta', 'llave' eta 'cerrojo, pestillo'. Elkano *Lizarragak inoiz zerrája erabili zuen*. Adoaingo izkribuetan, baina, *ate* eta *borta* ageri dira, baina ez bata ez bestea dira inguru honetakoak. Lehenengoa zabalera handikoa da eta bestea, agian bereziki, Zubero-Erronkaribarkoa. *Gako* hitza ere, bere aldetik, Iparraldeko euskalkietan dagokie.

⁷⁶ Lerro honetan: 'camisa' y 'jubón'. Adoaingo VE delakoan, *atorrac* 'enaguas'.

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdor 1865	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	atzapar, atzapar, atzapar	atzapar; bustan ⁷⁷	atzapar; buzen, puzten		atzapar ⁷⁴ ; buzan	atzapar, atzapar
au; au beratu	atzo; erenegu ⁷⁸ au, gau ⁷⁹ ; auxe; au beratu aunka	atzo; erenegu au, gau; beratu	atzo; erenegu au, gau aun, aunka, aunketu ⁸⁰	au, gau	atzo; erenegu, ereneu au, gau aun, aunka	au
gastexo	aur, ume; mutiko ⁸¹ aurtto; bolaxo; asoko ⁸²	aur, ume; mutiko mutiko; mandoko	aur, ume; mutiko latxo; arditxo; mutiko emari	aur, ume	aur, ume; mutiko mutiko, muxiko emari	aur pobretxo; bortialxo aurdun
	aurpegi; b(eg)itarre; matel autatu, elejitu, berexi	aurpegi; matel eslejitu	aurpegi; matel	aurpegi elejitu	aurpegi nonbratu	begiarte auratu
	auteman, goartu, sentitu ⁸³		auteman, nabaitu	sentitu	oartu, sentitu	oartu/E, sentitu

⁷⁷ Lerro honetan 'garra' eta 'cola'. Adoaingo I. izkribuaren hasieran *atzapar* irakur badaiteke ere, ondoren *atzapar* idatzi zen: 1) *ez guehiago erortzeco Deabruaren atzaparretan*; eta, 2) *etsajaren atzaparretan*.

⁷⁸ Lerro honetan 'ayer' eta 'anteayer' izateaz gainera, Elkanoko Larrainzarrek *laudenegu* [sic] eta Ilurdoko Garrusek *laundenegu* 'trasanteayer' eman zuten.

⁷⁹ Lizarragaren lanetan *au / ori / ura* izenordetat eta *gau / gori / gura* erakusletzat ditugu ohiki, inoiz salbuespenen bat bada ere: *Sar-zazu ceure eri-ori emén...* (SJ-XX-27). Elkanotik at, erabilera horien arteko nahasmena areagotutik dakusagu, ustzko araua-edo noiznahi urratutik.

⁸⁰ Leihatila honetan: 'ladrido' eta 'ladrar'. Ilurdorzen *izákurre dagó...* *áunkes* 'el perro está ladrando' eman ziguten, eta Arrietan ere antzera: *txakúrra... aunká áitzen dá*.

⁸¹ Lizarragarentzat *ume* 'criatura, hijo/a' izanik ere, 'cría' ere bazen; hona adibideak: 1) *Baña errecebitu-zitien gucié eman-cióte éscu eguitécó Jangicoarén ume* (SJ-I-12); eta, 2) *Astoain hitmea astocó (Programa)*. Urtziko kristau-ikasbidean hitz honek bi esanahi hauetatik aurrenekoa du, baina Elkanoko beste zutabeen, Larrainzarrean, animaliekiko erreferentzia dugu. Mutiko hitza dela-eta, Ilurdorzen, *se dice a los chicos de 12 en adelante*, de 12 años adelante esan ziguten.

⁸² Lizarragak, hala euskal hitzekin nola erdal maileguekin, xumegariak lasai asko erabili zituen, gehienak -*ito* bukaeradunak: *axuritto, erletto, guitto, iruzkitto, laburto, leitto, li-mosnatto, marabeditto, pobretto, sutto, txikitto, xoritto, zaitto, zerbaitto, zokotto, zulotto / zullotto, mutikotto, gexagotto...* (azken hiru adibideetan xumegari bikoitza dugu), baina baita bes-telako batzuk ere, jarraiko hitzek erakusten dutenez: *arxaiko, pintaska* (ardo-pinta txikia), *potroko, bolaxo, exenpluxo, neskarxo* (-*xo* bukaeradun hauek oso urriak dira), *arri-koxko* eta *nekexko*, besteak beste.

⁸³ Lerro honetan: 'advertir', 'percibir', 'darse cuenta'. Arrietako gure oharretan *auteman* hitza ez badakusagu ere, hurbileko Hiriberrikoetan bai, ageri zaigu, Ambrosio Usozek emana. Nafarroako zenbait eskualdetan, bestalde, erdaraz mintzatzean, 'darse de cuenta' erabili ohi da maiz: *y no se daba de cuenta*, kasu.

Zabalégi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1885	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	aus; erraus; erraustu ⁸⁴	aus; arraus; arraustu	aus; auz; erraus		aus; erraus	
	auxi, urratu, xatu ⁸⁵	ausi, urratu, xatu	ausi, pusketu	ausi, auxi	ausi, puskatu, matxakatu	ausi; puskatu
	axuri; umeri ⁸⁶	axuri; umeri	axuri, bildots; umeri		axuri, bildots	
	ayen, aien; zarmendu ⁸⁷	ayen; sarmendu	ayen; zarmentu			
	azal, axal, larru; bilo ⁸⁸	azal, larru; bilo	azal, larru; bilo		azal, larru; bilo	
azi, azitu	azi, anditu; ez ⁸⁹	azi, anditu	azi, anditu	azi, aumentatu	azi, anditu, larritu	anditu, anditu VE
grano	azi; pikor; ale, grano ⁹⁰	azi; pikor; grano	azi; pikor; grano		azi; bikor	ale VE
	azkar, bizkor ⁹¹	azkar	azkar*, bizkor; fier		fier, fiar, fiarki	azkar
	azken, azkeneko	azken	azken	azken	azken, asken, askeneko	azken
	azpi, pe	azkonar; ergunide; uron	azkon; panikesa; uron ⁹²	azpi	azkon?	erbinude VE
		azpi, pe	pe		azpi, pe	azpi, pe

⁸⁴ Elkanoko leihatila honetan gazt. ‘ceniza’, ‘polvo’ eta ‘pulverizar’ dugu, hurrenez hurren, hainbat eta hainbat lekutan erabili ohi denaren gutzit beste aldera. Hona lagin bat: *Azquenic errausteko guciá... = Finamente, para aniquilar todo...* (DCC). Arrietako lagunak, haatik, ‘ceniza’ aipatu nahiz, une batean *errausa* eta beste batean *ausa* eman zigun, bi hitzen arteko lehia halakoxe nahasmena erakutsiz. Elkanoko Larrainzarrek emaniko lagina *arraustu = pulberiser* delakotik atera dugu.

⁸⁵ Elkanoko bi zutabetako *urratu* ‘derribar, demoler, rompet, destrui, rasgar, aniquilar...’ izan daiteke eta *xatu* ‘desmembrar’ eta ‘masticar’. Besterik ere bada Lizarragaren izkribuetan: *abarrikatu* ‘rompet, destrozar’, alegia. Arrietan berean ez, baina Artzibarko Azparrenen, *abarrikatu* ‘deshacer, destrozar’ dela esan ziguten.

⁸⁶ *Axuri* ‘cordero pequeño’ da eta *umerri* ‘cordero (vianda)’. Ilurdotzen, *bildots*, *cordero de un año*, *más o menos*, eta *umerria*, *cordero muerto*. ‘Azuri’ ere bildu genuen; berriemaiak hanturik agian?

⁸⁷ Leihatila honetan: ‘vid’ eta ‘sarmiento’ (SJ-XV-1), ‘vid’ horixe izanik Larrainzar herrikideak emaniko esanahia. Ilurdozko berriemaiarentzat, aldiz, ‘cepa’ zen.

⁸⁸ Lerroan: ‘piel’ eta ‘pelo’. Lizarragak inoiz *ille* erabili zuen: *atraxen burúco illéat* (*Koplak*), baina kanpoko hitza dirudi.

⁸⁹ Leihatila honetan: ‘criar, crecer, agrandar’ eta ‘educar’, unean uneko testuinguruaren arabera. Hona Ilurdozko adibide bat: *ásten tsásten, los criaban*.

⁹⁰ Leihatila honetan: ‘simiente, semilla’ eta ‘grano’. Elkanoko 2. leihatilan *pikor = baie* (gazt. ‘baya’) dugu; bitxia da, haatik, Larrainzari bilduriko ‘azi’ hitzak artikulua jasoztean, hau *-e* bilakatu izana: *bota zak azie idurikal*. Ilurdorzen, azkenik, *pikor* bai ‘grano (de trigo)’, bai ‘diente (de ajo)’ esanahiekin eman ziguten.

⁹¹ Leihatila honetan: ‘fuerte’ eta ‘vigoroso’ dugu, gutxi-gorabehera. Ilurdozko *fier*, lagin honetan: *úre dá gizóñ, mutikóá fierra; fuerte, trabajador...* Arrietan *bizkorta* bildu genuen, ‘animarse’-edo: *anisáñ txortáñ?... adióñ! barnéa bizkörtzeka edo...* *berótzeka pixkát*.

⁹² Leihatila honetan: ‘tejon’, ‘comadreja’ eta ‘hurón’.

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdortz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	azpi	istar; ipurdi	azpi; izter; ipurdi ⁹³		azpi; iztar; ixar; ipurdi	
badugu	ba + d; baduzu, bauzu	bauzu, baute	badut, bauzu, baute	badut, bauzu, baute	ba + d; bauzu, baute, boure	baduzu
	baba	baba; ilar; txixillo	baba; iler; txixirio ⁹⁴		baba; ilar*; txixirio	
	bago	bago; txipo	bago; txipo		bago; txipu ⁹⁵	
	bai jauna / ez jauna ⁹⁶	bajiona / ezkauna	bai jaune / apez jaune	bai jauna / ez jauna	bai jauna / ez jauna	
	baia, baiastatu ⁹⁷		baia, pasadera			
	baitez / ezetz		baitez, baitez / ezetz		baitez, baitez / ezetz	
baite	bait + d; baita, baituzu	baita	baituzu; baituzie	baita; baitu	bait + d; baita; baituzu	baitut
	bait + g; baikara	baikara	baigitzen	baikara		
	bait + n; bainaitz ⁹⁸	bainaitz				
baizite, baizitue	bait + z; baize	baizara		baizite	bait + z; baizite	baizite
baizikan	baizik ⁹⁹		baizik, ezik	baizik, baizik, baizikan	baizik*, baizite	baizik, baizite

⁹³ Lerroan: 'pierna', 'muslo' eta 'culo, nalga'. Ilurdortzen, gainera, *azpi-mazel = pantorrilla?*

⁹⁴ Lerro honetan: 'haba', 'guisante' eta 'garbanzo'. Arrietan *ilar / iler* aldaerak eman zizkiguten, bi kasutan geuk bultzaturik, baina.

⁹⁵ Lerroan: 'haya' eta 'chopo'.

⁹⁶ Hala ere, *z + j*, batzuetan, *tx* dugu Lizarragarengan: *echaquin* (= 'ez jakin') edota *apexaun* (= 'apez jaun'), adibidez. Arrietatik hurbil ere, Hiriberrin zehazki, A. Usozek honela idatzi zuen 1981ean: *emen gaudegu demboira hongonequin bechaquin zerequin*.

⁹⁷ Leihatila honetan: 'cedazo' eta 'cernet': *Orduan emastequin arturic an aurquituzuen baiabát...* (Serm-5). Ilurdoko *pasadera* ere, 'criba o cedazo' da [Ortiz-Betelu], Iribarrenen arabera. 'Bahe', halere, ez da inguru honetako hitz esklusiboa, hemendik urrun samar, Guliko Larumben, agertzen baita gure oharretan eta are Sakanako Bakaikun, Etxarri-Aranatzen eta Ihabarren ere.

⁹⁸ Lerro honetara ekartzeko, damurik, ez Ilurdoko ez Arrietako ekaietan ezer ez dakusagun arren, lerroa, lehenagoko biekien zein hurrengoarekin sandhi-kontuak agertarazteko berriaz prestatua, bere horretan mantendu dugu.

⁹⁹ Zaratzuera orotarazten duen *baizite* ere modismoa erabili zuen inoiz Lizarragak: *ez cerén Aita niór icusi-duén, baizite ere Jangoico-ganic dénac, onéc icusi-dú Aita* (SJ-VI-46). Urizko doktrinan *baizite* dakusagu idatzita behin baino gehiagotan, baina baita *vaitiscan* ere: *Cerengatic obra onac hinac vecatu mortalean estire meritoriac ez satisfatoreac vaitiscan impretatorio rio-ak* [sic]... Hitzzen *-ikan* bukaera ez ohikoari dagokionez, bestalde, Zabalegin *ucirican* ere bada; Elkanoko Lizarragaren izkribuetan, *alarican* eta *quendurican*; eta, Adoainen, *izanikan* eta *Adamikan*. Herri honetako *baizite* hitza, azkenik, Lapurdin ikasiko zuen Aita Estebanek, Pedro Axular urdazubiarraren *Gero* ospetsuan (eta ez horretan bakarrik) agertzen baita.

Zabalegi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdoz 1985	Urutz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
bakar, bakarrrik, solo	bakar(rik), solo, soil ¹⁰⁰	bakar	bakar, bakarrrik	bakar	bakar, bakarrrik	bakar, bakarrrik
	bake / gerra	bake	paze / gerra ¹⁰¹	bake	bake / gerra	pake
bakox	bakox ¹⁰²	bakoxa	bakox, bakar	bakox, bakoitx	bakox	bakox, bakoitx
balin	baldin, barin	baldin, balin	baldin, barin	balin	balin	baldin, barin
	balio, baliatu	balio izan	balio izan	baliatu	balio izan	balio, baliatu ¹⁰³
baña	baña	baña	baña, baño ¹⁰⁴	baña, baño	baña, beña, baño	baña, baño
	baño: len baño len	afaldu baño len	eman baño len ¹⁰⁵	lemañolen	baño: len baño len	egin baino len
baño geyago	baño yago; baño gutiago		beño yago; beño gutiago	baño geyago	baño yago, baño geiao	baino geyago
	baratxuri; tipula	baratxuri; tipula	baratxuri; tipule		baratzuri; tipula	
	baratze, baraze; esi ¹⁰⁶	baratze; esi, zerrado	baratze		baratze; esi	baratze; esiVE
lo mismo	bardin, bertdin; oroa ¹⁰⁷	bardin	igual, igualmen; orobat*	igual, lo mismo; orbat	berdin, igual, igualki	orobat
barkatu ¹⁰⁸	barkatu, barkazio	barkatu	barkatu, barkazio	barkatu, barkazio	barkatu, barkazio	barkatu

¹⁰⁰ *Soil* hitza honako pasartearen dakusagu: *icuzise esu soilbat cogóla escriuicen lenabázuc parétean* (Serm-1). Iuan Beriaynek, aspaldi badu ere, behin baino gehiagotan erabili zuen. Zabalegin, berriz, saio honen sarteran aipaturiko *solo* dugu: *exortacioac eta predicuac, solo escacendioie seroreri*.

¹⁰¹ Ilurdozko *paze* hitza zinez harrigarria iruditzen bazagu ere, Elkanoko Lizarragak erabili zuen inoiz, J. Apececheak (Trat) idazten duena kontuan izanik: «1. *Tradición cristiana sobre la paz*: A modo de introducción alude [Lizarraga] a la importancia que el tema de la paz (*pácea edo báquea*) tiene a lo largo de la tradición cristiana».

¹⁰² Gazt. 'cada, cada uno', eta ez ekialdeko zenbait eremutan bezala, non 'único' izatera datorren. Inoiz, baina, 'álguno' (edo 'ninguno') ere izan daiteke: *Cumpli-céyen itz erman-zué-na: Eci eman-tidanetái, ezttú gáldu bacóhic ére* (SJ-XVIII-9).

¹⁰³ Adoaingo 'balio' hori *balios / baltiosena / baltiosuena* hitzetatik atera dugu.

¹⁰⁴ Ilurdozko *beña / beño* ere bai ('baina', alegia), haien aurreko silaban *i* edo *u* bat izanez geto. Adoainen, Lapurdi aldeko *bainan* ere bai.

¹⁰⁵ Ilurdozko *eman* hori, kasu honetan, 'eraman' da, *man* 'eman' ohi den bezala.

¹⁰⁶ Lerroan: 'huerto' eta 'seto'. Lizarragak honela dakar: *Bi esi, bi parete edo bi murállá paratutíó naturalézac miári*. (Serm-1). Arrietan zera aditu genuen: *alórna... ésis... érsi du*.

¹⁰⁷ Lizarragak *igoal, igualki* ere bai. *Berdin* hitza, berriz, oso bakana da idazle honen lanetan, Ondarrak prestatu *Ongui Itzen laguntzeco itzgeiac* liburuan (hemendik aurrera *OILD*) behin agertzen bada ere.

¹⁰⁸ Zabalegiko kasu honetan, *barcazazu* batetik aterata. Lizarragaren izkribuetan eta Urizko kristau-ikasbidean, *barkamendu* ere bada.

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	barna: mundua barna ¹⁰⁹	barna	barna*		barna: Errotik barna	barna: karrika barna
	barren, barne	barren, barne	barren, barne		barren, barne	barren
	itsaso guztiain barnean	erriain barnean	Arletan barnean			
	baru, barutu ¹¹⁰	baru	baru	baru, barutu	baru	barur, baruru
zoko	baster; zoko		baztar		bazter	bazter; zoko, txoko
bat: orazio perfektu bat	bat: kanibeta txar bat ¹¹¹	bat	bat: bezko aundi bet	bat: debozio andi bat	batke xuri bat	bat: imajina eder bat
	bana; birana; iruna ¹¹²	bana; birá; iruna; seira	bana		bana; seira; zazpita	
	bata nola berzea				zeruko bidia nola berzea	
	bataio, bataiatu ¹¹³		bateyo, bateiatu	batayo, batayatu	bateo	batayo
	batean, bateo ¹¹⁴		batean		batean, batio	
	batzarre, bazarre				batzarre, bazarre	
batzuk, batzuek	batzuk, batzuek ¹¹⁵		batzuk, batzuek, batzek	batzuk	batzuk, batzuek	batzuk, batzuek

¹⁰⁹ Elkanoko Lizarragaren *barna* 'por, a través de; profundo' da (DCC). Arrietan, ablatiboari loturik dakusagu: *Errotik barna* edota *exxemeniatik barna*. Adoainen beste adibide bat ere bada: *Jaun prestubat joatendenean mundu ori barna...* (IV-Izkr).

¹¹⁰ Lerroan: 'ayuno' eta 'ayunar'. Ilurdotzen *ni, gáur; báru néiz, hoy ayuno yo* eman ziguten. Adoango erantzunak Urraulgoitiz hurbileko Zaraitzun, eta are Aezkoan, ohikoak dira guztiz. Iuan de Beriayn Utergako Abadeak ere *barur* erabili zuen, gainera.

¹¹¹ *Bat* zenbatzailea, batzuetan, adjektiboaren aurrera igarota ikusten dugu, eta mugaturik gainera; Elkanon, *kanibeta bat txorrotxa* edota *manamendu bat berria*, adibidez; Zabalegin, *emancizquio ogú escatuctuenac*; Ilurdotzen *exse bat aundie* dugu eta Arrietan *eulzi bat ederra* edota *egun bat ona*.

¹¹² Elkanoko leihatila honetan 'a cada uno', 'a cada dos', 'a cada tres' dugu; *banaka* eta *biranaka* ere badakusagu Lizarragaren izkribuetan. Arrietan ere antzera, zenbakiaren arabera. Ilurdotzen, hitzaren aurreko silaba nolakoa izan, *bena* izan daiteke: *ogf béna*, a cada pan.

¹¹³ Lizarragak, halaber, *batayatu* idatzi zuen inoiz, eta Elizalde Urizkoak, *batayo-z* gainera, baita *batayu* ere.

¹¹⁴ Lerro honetan: '(todos) a la vez, a una'. Ilurdozko berriemaiteari hitz honetaz galdetu genion: - *Bateo, no?* - *No, batéan*, izan zen erantzuna. Arrietakoa, ordea, honela mintzatu zen: *tzakúrra fáttatú ze(n), etzé etórri... arzáiekim báttio, exéna*.

¹¹⁵ Elkanoko Lizarragak *batzuk* iragangautzean eta *batzuek* iragankorreakin erabiltzen zuen. Adoango izkribuetan, baina, joera hau ez da beti betetzen eta gainerako zutabeetan ez da oso ohikoa.

Zabalégi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdoztz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	bazkaldu; afaidu	bazkaldu; afaidu	bazkaldu; afaidu, afaidu		bazkaldu; afaidu	
	bazkari; merendu; afañi	bazkari; afañi	bazkari; merendu; afañi	bazkari	bazkari; merendu; afañi	
bear	bear: bear duzu, beazu		beat, biar: beaur, biat	bear: bear duzu, beaur ¹¹⁶	bear: beaur, biat, biazu	bear: bear duzue
	bedekatu	bedekatu	bedeinkatu, bedeinketu ¹¹⁷	bedekatu	bedekatu	bedekatu
	bedrazi, bedrazi	bedrazi	bederatz, bedratzi	bederatz, bedratzi	bederatz, bedratzi	bederatz
	begi; beari; sudur	begi; biarri; sudur	begi; biarri; sudur	begi; beari; sudur	begi; biarri; sudur	begi; beari, begarri ¹¹⁸
beiratu	be(g)iratu, miratu ¹¹⁹		miratu		be(g)iratu, miratu	begiratu
berris eta berris	bein; berze bein	bein	bein; bertze bein ¹²⁰	bein; bein eta geyagos	bein; bein bates	bein; beiri berritan
beñere	be(i)ñere, sekula(n)	beñere	beñere, beñere	beñere, sekula, sekulan	sekula, sekulan	beñere
bezala	bekala, bezala; gisa ¹²¹	bekala, bezala, bejala	bezala	bezala; gisa	bezala; gisa	bezala; gisa
	bekatar, bekatore ¹²²		pekatari	bekatar, pekatari	bekatar	bekatore, bekatoros
bekatu, oben, kulpa	bekatu, oben, kulpa	bekatu	bekatu, oben, kulpe	bekatu, pekatu, kulpa	bekatu, oben, kulpa	bekatu, pekatu, kulpa
	belar; asun ¹²³	belar; axun	belar; asun, atsun		belar; axun, axuin	belar
	belau, belauriko	belau	belau		belau, belauriko(tz)	belauriko, belauriko
beldur	beldur, beldurtu	beldur	beldur	beldur	beldur, bildur, beldurtu	beldur, beldurtu
	mendeku, mendekatu	mendekatu			bengatu	mendeku
	berant, berandu	berant			berant, beransko	

¹¹⁶ Uritzzen, *biar / bar / ber* ere bai. Arrietan, *biar* eta, leihatilako *biazu* horrez gainera, baita *beaurzu* ere.

¹¹⁷ Ilurdoztzen, *bedetkatu / benediketu* ere bai.

¹¹⁸ *Begarri* hori Adoaindik oso hurbil, Itzallen, adi zezakeen Aita Estebanek –non-eta bere herrixkan jada sartua ez zen–, Zaraitzuko hitz eskusiboa ez izan arren.

¹¹⁹ Lizarragaren lanetan *beginatu / beiratu / mirar* dugu (inoiz, agian, ‘cuidar’): *Yá ebatán bietán dugu hispilubát beimeccó* (Tra). Adoainen ere antzera: *eta veguirazazue eer paciencia andiarequin sufrizenduen gure amorioagatic* (II-Isk). Elkanoko *miratu* ‘indagar, registrar’ da Apechearen arbera (DCC).

¹²⁰ Ilurdoztzen *bein bet* ere bai, Bilintzen inoizko ‘Bein batian Loyolan’ izeneko kantua oroitaz dezakeena.

¹²¹ *Bezala* egundoko salbuespena da Lizarragaren lanetan, ia-ia beti *bekala* erabili baitzuen. Arrietan, ohiko *bezalar*-gainera, zera bildu genuen: *diré denák... tzakiúrta ta... katuáin gisála*.

¹²² Gazt. ‘pecador’. Adoaingo Aita Estebanek erabili hitzok Lapurdi aldean ikasirikoak bide dira, haierako bat Lizarragak erabili bazuen ere.

¹²³ Lerro honetan ‘hierba’ eta ‘ortiga’ dugu; hurrengoan, ‘rodilla’ eta ‘de rodillas’.

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdortz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	beraz, beras	beratz ¹²⁴		beras		
bere; arren	bere, beraren; arren ¹²⁵	bere, berain; arren	bere; arren, aren	bere; arren, aren	bere; arren, aren	bere, beraren; arren
beretala, ya	beretala, berfla, sarrri	berfla, ya	berla, beala, abiat	beala	beretala, beala, segido ¹²⁶	beretala
	berexi, berexi, apartatu	berexi, apartatu	distingitu, aparte	berexi, berxi, apartatu	berexi, ber(e)xi, aparte	berexi, apartatu
	bero; otz; epel	bero; otz; epel	bero; otz; epel		bero; otz	bero; otz; epel
	berregun, berreun	berregun	berregun, berreun		berregun	berreun
	berri / zar	berri / zar	berri / zar	zar	berri / zar	
bernis	berritz, bernis, berrito ¹²⁷	berritz, bernis	berritz, berritz		berritz, bernis, berritz	berritz
	berritz, ordeta ¹²⁸	berritz	berritz		berritz	
	bertz; zartegi ¹²⁹	bertz, berxko; zartegi	bezko; zartegi		be(r)zko, bexka, besko	
bertzela	bertzenas, ezperen ¹³⁰		bertzelaz, ezteren		bertzenas, bertzenaz	bertzenaz
bete	bete / uts, ustu	bete / uts, ustu	bete / uts	bete	bete / uts	bete
	bezain; bezanbat	bezain	bezain; adine ¹³¹	bezanbat	bezain, bezein	bezain

¹²⁴ Ondarrak honela dio: 'beratz = donc: en todas partes, pero entre aspás'. Gazt. 'por consiguiente' da hori.

¹²⁵ *Benaren* hitzari dagokionez: 1) Elkanoko Lizarragaren izkribuetan *berain* gisako aldaera ere bada (Larrainzar bere herrikideak handik zenbait urtetara eman bezala); eta, 2) *arren* hitza dela-eta: *garren* ere bai, izen bati loturik: *aitagarren*, *arimagarren*, *sandugarren*... alegia. Ilurdortzen *arren* gehiago *aren* baino, eta Arrietan guztiz alderantziz. Adoaingo izkribuetan, azkenik, *aren* ere bada.

¹²⁶ Arrietako berriemaiaren emazte Francisca Zilbeti, hurbileko Esnoz herrikoak (Erriobar) *sarri* erabili zuen: *Ni bandé mezarí; sàrri ártio!*, Elkanoko Lizarragaren izkribuetan ageri bezala. Ilurdortzen, berriz, *abiat* 'enseguida' da eta *beala* 'luego, un poco más tarde', bertako berriemaiaren arabera.

¹²⁷ Leihatila honetan: 'de nuevo, nuevamente, otra vez', eta *berritz* ere bai. Arrietan ere aditu dugu *berritz*, salbuespenez baina.

¹²⁸ *Berriz* hau gazt. 'en cambio, por el contrario' da, eta *ordeta*, batzuetan 'en cambio' baldin bada ere, beste batzuetan 'pues kausalaren esanahiaz ikusten dugu Lizarragaren eskuizkribuetan.

¹²⁹ Lerro honetan: 'caldero' eta 'sartén'. Leihatila batzuetan ditugun *berzko* / *besko* hitzek (eta, batez ere, *berzko* / *besko* modukoek) xumegariarik dirudite, baina zenbait kasutan txiki-garritasun hori kontuan hartu gabe erabiltzen direla iruditzen zaigu.

¹³⁰ 'Bestela' esanahiaz ekarri dugu *ezperen* hitza lerro honetara (DCC-an 'por el contrario, en caso contrario'), nahiz, testuinguruaren arabera, agian 'bederen / behintzat' (Lizarragaren izkribuetan *berere* / *berizait*, 'al menos / siquiera') ere izan litekeen. Zabalegiak honako adibidean: *eta verzelaric icusace claro parabola ontan*. Arrietan, *bertzenas* aise gehiagotan *bertzenaz* baino, eta, *bestenas* ere aditu dugu, behin bederen.

¹³¹ Ilurdozko lagin hau *zui adine* (gazt. 'tanto como a vosotros') batetik atera dugu (*arime* aldaera ere jaso genuen). Urizko testuan, berriz, *vezanbates* eta *vezambates* behin baino gehiagotan ikusten dugu. Arrietan, *bezain* ohikoagoa da *bezain* baino; *bezaan* ere aditu dugu, baina.

Zabalégi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	bezino, barride		bezino, auzo, auzoko ¹³²		bezino, auzo, etxeondo	
bi	bezpera; biramon ¹³³	bezpera	bezpera; biremon, biremen		bezpera; biramon, biremun	biramun
bigaren	bi, bidá; ogetabi	bi, bidá; ogetabida	bi, bidé; ogetibide	bi	bi, bidá; ogetabida	bi, bidé/VE; ogoitabi ¹³⁴
	bigaren	bigarren	bigarren, bigeren	bigarren	bigarren	bigarren ¹³⁵
	biku	píku; aran; gerezi ¹³⁶	píku; aran; gerezi		aran; gerezu	
arkitu	bilatu, opatu, aurkitu ¹³⁷	bilatu, opatu	biletu, opatu	aurkitu	bilatu, billatu, topatu	bilatu, kausitu, a(u)rkitu
juntatu, unitu	bidu, juntatu, unitu ¹³⁸	bidu, juntatu, unitu	bidu, juntatu, apletu	juntatu, xuntatu, unitu	bidu, juntatu, unitu	bidu, juntatu
landurik, sarturik	bidurik, sarturik ¹³⁹		biduik, ingurituik	obligatuik, obligaturik	biduik, makuruik	arriturik, izkribaturik
biotz	biotz	biotz; errai	biotz; errai, pulmon	biotz	biotz; errai, alsai ¹⁴⁰	biotz; errain
birute	birute			birute		bertute
	bisita, bisitatu		bisite, bisiteru	bisitatu	bisita, bisita in	bisita, bisitatu
bizi, bizitu	bizi, bizitu		bizi, bizitu	bizi	bizi, bizitu	bizi

¹³² Ilurdotzen, *etxeondo* ere bai, Arrietan bezala. Herri honetan, gainera, *etxeondo*. Elkanoko *barride* hitza Zaraitzuko ibarrean aditurik gaude aspaldi, Otsagin 'barrio' gisa, baina Eaurtan 'vecino' modura.

¹³³ Lerro honetan: 'vispera' eta 'día siguiente (al referido)'. Arrietan, honako aldaerak ere bai: *bidamon / bidemon / bidemun / bidarmon*.

¹³⁴ Adoaingo *ogoitabi* hori, Pirinioz beste aldean, Lapurdi aldekoa da batez ere. Itxura denez Aita Estebanek han ikasiko zuen, hitzen bukaeran 'ogoi' erakusten duten *berrogoi* eta *irurogoi* gisako zenbakiekin batera, besteak beste.

¹³⁵ Lerro osoko *-garren* bukaeraz landa, Adoaingo IIIb izkribuan, zenbaki ordinal hauek mugaturik agertzean, laburkerak dakuskigu: *Sisto bortz garnu / Benedicto Ama irur garnu / Pio zazpi garnu*, adibidez.

¹³⁶ Leiharila honetan: 'higo', 'ciruela' eta 'cereza'. Arrietan *gerexu / gerexio* ere bai.

¹³⁷ Lizarragaren lanetan badira, halaber, *billatu* eta *arkitu* moduko aldaerak zein *kaustu* era sinkopatua ('buscar, hallar, encontrar...'), hitzen arteko arlo semantikoak behar adina berreztzen beti erraza ez bada ere. Hona bizpahiru adibide: 1) *Cer billatzen-dúce?* (SJ-I-38); 2) *Biramoneán nai-izán-zue átra Galilearú, ta opattu-zue Filipe* (SJ-I-43); eta, 3) *Aurquitu-zue arc lenic bere anáya Simon* (SJ-I-41). Elkanoko Larrainzaren zutabeen, *opatu, bilatu = trouver* ('hallar, encontrar') dugu, baina *bilatu = chercher* ('buscar') ere bada. Adoainean, *bilatu* 'buscar' da eta *kausitu* 'hallar': *Bada, Jesus bilatzen duenac caustucodu*. Dena dela, *arkitu / aurkitu* ere bada.

¹³⁸ Elkanoko zutabe nagusi honetan *batenatu* ere bai.

¹³⁹ Partizipio hauek direla-eta, Elkanoko barietateari egokituriko herrietan *-durik / -turik* agertzen bada ere, Artzibarkoari dagozkionetan *-duik / -tuik* dugu, nahiz Uritzko herrian bi moldetakoak agertzen diren: *fundatuic, errecibituic, paratuic, obligatuic / obligaturic, proposituic / proposituric, confesatuic / confesaturic, unituric, escaturic*... adibidez.

¹⁴⁰ Lerroan: 'corazón' eta 'viscera, pulmón'. Adoaingo errain hori, aldez, 'sabel' hitzaren sinonimotzat dakusagu: *eta Joanes gozoz beteric astenda salhoca bere Amaren errainetan edo sabelean*.

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	bizitza, bizitze; erioitze		bizitze; erioitze; ezkontza	bizitza; erioitze	erioitze; ezkontza	bizitza; erioitze/a; ezkontza
	borda; exola		borda		borda; exola	
borz	borz, borz; zortzi, zortzi	borz; zortzi	borz; borz; zortzi	borz; zortzi	borz; zortzi	borz; zortzi ¹⁴¹
bota	bota, egorzi, urtiki ¹⁴²	bota	bota, tiretu	bota	bota, botatu, tiratu	bota, egorzi
petxo	bular, petxo; bizkar	bular; bizkar	bular, petzo; bizkar	bular	bular; bizkar	bular; bizkar
	bulkatu, bulkaldi ¹⁴³		bulketu		bulkatu	
billosi	buluzi, bulusi ¹⁴⁴	buluxi	buluzi	buluzi, bulusi	buluzi, buluxi	biluztu
	burlatu, buria egin			buria in	buria in	burlatu, urfatu ¹⁴⁵
	burriña; altzairu ¹⁴⁶	burrin; altzairu	burriñe; altzallu		burdina, burdiña	burdina
	buru; kopeta; kasko	buru; kopeta	buru; kopeta	buru; kopeta	buru; kasko	buru
	bustarri; kapestru; fale ¹⁴⁷		buzterri; kapestru; fale		buztarri; fale	
	busti / idortu, eartu ¹⁴⁸	busti / sekatu	busti / idortu, eyartu		busti / idortu, eyartu	busti
	bustin; loi; area ¹⁴⁹	bustin; loi; area	buztin; loi; area		buztin; loi; area	loi

¹⁴¹ Adoainen *bost* ere bada, inguru hauetarako bitxia dirudiena.

¹⁴² Elkanoko leihatila honetan *botatu* eta *tiratu* ere bai, Arrietan bezala, kasu.

¹⁴³ Leihatila honetan: ‘empujar’ eta ‘empujón’. Honen aurreko saioan ere (FLV, 116), oroitarazten dugu, *bulkatu* horixe agertu zen Artzibarko Espotz, Hiriberri eta Azparren herrietan etc.

¹⁴⁴ Lizarragak *buluxi* / *biluxi* aldaerak ere erabili zituen, ‘desnudar’. Uritzko eskuizkribuan *bulien* agertzen da, baina gero oso garbi ez dagoen zerbaite erantsi zitzaion hitzari, ‘buluzien’ gisa uzteko asmoz, behar bada. Adoaingo *biluztu* hori Lapurdi aldean egin bide zuen bere Aita Estebanek.

¹⁴⁵ Lapurdin ikasi bide zuen *urufatu* hori ere Aita Esteban adoaindarrek, lapurtar eskuliboa ez izan arren, Enrique Zubiri ‘Manezaundi’ luzaidarrak ere, besteak beste, inoiz erabili baitzuen.

¹⁴⁶ Lerroan: ‘hierr’ eta ‘aceró’. Ondarrak ‘altzairu (entre paréntesis)’ idatzi zuen. Ilurdotzen, *altzallutu* bier *dúgu altzairre* eta baita, *burriñe-z* gainera, *burriñe / burdine* ere.

¹⁴⁷ Lerroan: ‘yugo’, ‘cabeostro’ eta ‘cencerro, esquila’.

¹⁴⁸ Lizarragak, zenbait testuingurutan, *leortu / agortu ‘secar’* (eta *txukatu ‘secar’* eta ‘enjugar’) moduko aditzak erabili zituen eta, are, *sekatu* erdal maillegua ere. Ilurdotzen, leihatilakoak bakarrik ez, *iyartu / igartu / iartu* gisako aldaerak ere eman zizkiguten, eta baita *iskatu* ere, arestian aipatu *sekatu* mailleguaz gainera, zeina, bidenabar esanik, Arrietan ere eman ziguten.

¹⁴⁹ Lerro honetan: ‘arcilla’, ‘lodo, barro’ eta ‘arena’. Arrietan, mugatutirik, *loea*.

Zabalegi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	buzatore ¹⁵⁰		pozale		pozadore, pozal	
	buzzu; ferrata ¹⁵¹	buzzu	putzu, pozu; ferrata		buzzu, putzu; ferrata	
arrepentitu	damu(tu), urriki(tu) ¹⁵²			damu	arrepentitu	damu, uriki
demonio	deabru, demonio	diabru, demonio		demonio	diabru, demonio	deabru
deitu, deyes	deitu, deiyes	deitu	deitu	deitu, deyes	deitu	deitu
	desesperatu, etsi ¹⁵³				desesperatu	desesperatu
despeditu	despeitu				despeitu	despeditu
	despeitzeraoan; iteraoan			xateraon	despeitzeraoan	
batere	deus / batere	daus / batere	bazkatzerako orduan ja, jai, batere, batre ¹⁵⁴	daus / ezdaus	daus / batere, batre	deus / batere
	dilindan, dilindaka		tzilintzen		dilindan	dilindakan, zinzilika
doktrina	diru; marabedi ¹⁵⁵		diru; mairi; sueldo		diru; sueldo; sos	
	doktrina, karexima	doktrina		doktrina, doktrina	doktrina, doktrina	doktrina
	ebaki, moztu	ebaki, moztu	ebaki, moztu		ebaki, moztu	
	ebatsi ¹⁵⁶	ebatsi		ebatsi	ebatsi	ebatsi VE
ebek	ebek, abek, gebek		ebek ¹⁵⁷	ebek	ebek, abek	

¹⁵⁰ Gazt. 'pozal, cubo'; Iribarrenek, VN delakoan, honela dio: *Cubo metálico de asa semicircular, que se utiliza para transportar agua u otras cosas.* (De uso general). En Pamplona lo llaman también *pozador*. (El dicc. incluye «pozal» como «cubo o vasija con que se saca el agua del pozo»). Elkanoko adibidea, zermahi gisaz, honakoa da: *ta buzatore becala atracendúena butzatic ina* (Serm-1).

¹⁵¹ Lerroan: 'pozó' eta 'herrada'. Arrietako berriemaileari *butzu* askotan aditu genion esaten; *putzu*, behin bakarrik.

¹⁵² Leihaila honetan: 'pesar, arrepentimiento' eta 'arrepentirse'. Hona Elkanoko adibidea: *cerén ilúndoa espaita urriquicéco dembóra* (Serm-1). Hona Adoaingoa: *Mariac negar equi-tendu, eta zuc eztuzu urriquiric antzen zure Jesus ofensatuduzunaz gueroz.*

¹⁵³ *Etsi hori 'desesperar' bide da: Pilátosec etsiric etzuzquela berati* = 'ez zitakeela bigundu', alegia (*Koplab*).

¹⁵⁴ *Gai* eta *yai* moduko aldaerak ere (gazt. 'nada') aditu izan dizkiogu behin baino gehiagotan Ilurdozko berriemaileari eta ja Artzibarrekin mugatzen duen Erroibarko Esnozren ere bilduririk gaude. Zabalegiko lagina *bateretan* hitz atzizkidun bitxitik atera dugu. Adoaingo izkribuetan, bestalde, *ezer* bat ere bada, *ezer ecenac* zehazki.

¹⁵⁵ Elkanon *mambidi* ere bai ('maravedí', garai bateko txanpona). Ilurdotzen *matindi* bitxi bat ere bai, eta Arrietan, berriz, *zortziko*, beste txanpon-mota bat bada ere.

¹⁵⁶ Aditz honekin zerikusia dutela, Lizarragak *lapurna* eta *ooina* moduko hitzak ere inoiz erabili zituen. Urizko doktrinan, *evasi* eta *evastea* idatzi zen.

¹⁵⁷ Ilurdotzen *oguek / auguek* aldaerak ere bai, baina ez dirudire fidagarriak, bertako berriemaileavek antzeko zuen ahuldadeari zor izango zaizkio-eta, ziurrenik.

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdoz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
ebetan	ebetan, ebetaik ¹⁵⁸		ebetan*	ebetan, ebetaik	ebetan, ebetaik, ebetrik	eben
	edatu, barratu, zabaldu ¹⁵⁹	edatu, zabaldu	barratu		edatu, barratu, zabaldu	edatu, zabaldu
	eder, galant, polit, propi	eder, galant, polita, propio	eder, polit, propi(c) ¹⁶⁰		eder, polit, pollit	eder
edo	edo ¹⁶¹	edo	edo, ero, oro	edo, ero	edo, eo	edo
	edozein	edozein	erozein	erozein	edozein, erozein ¹⁶²	zeinai
	egatu, bolatu ¹⁶³	bolatu	bolatu		bolatu, goratu	
berdadero	egia, egiazko ¹⁶⁴	egi, egiazko	egia, egie	egia, egiazki	egia	egia
egin, in	egin, in / desegin	in / desin	in / erazi	egin, in	egin, ein, in / des(eg)in	egin, in
	egitekoso soñu ona				lan goi ez irekos	
	egille; elzegille; irrigille				langile, langille; igille	
egon	egon	egon	egon	egon	egon, eon	egon ¹⁶⁵
	egosi; irakin	egosi; irakin	egosi	egosi	egosi; irekin ¹⁶⁶	

¹⁵⁸ Era intentsibo batean, Elkanon, *ebetáik gucietaik* era, Uritzzen, *ebetáik vietaik*.

¹⁵⁹ Elkanoko Lizarragaren izkribuetan *barráiatu* / *barrayatu* ere bai; Arrietan besterik ere bai: *esparbatu*.

¹⁶⁰ Leihatila honetan: 'hermoso, bonito, bello...'. Elkanoko Lizarragaren *propi*, baina, '(elegido) a propósito' esanahiaz. Ilurdozten, *propio* ere bai, Elkanoko beste leihatilan bezala.

¹⁶¹ Lan honek barne hartzen duen eremuan ez dugu 'ala' adbertsaiboa aurkitu izkribu zaharretan ez-eta duela 25-30 urte inguruko berriemaileen ahotan ere. Elkanoko Lizarragarenetan *on edo gaitz* dakusagu; Uritzko doktrinan *egua den ero ez?*; Ilurdoz-Arrietan *égia zén edo gezúrra* zein *égia zén edo gezúrra* kasu; eta, Adoaingo izkribuetan *uzi beardu-zun edo ez* (VIII-1zkr).

¹⁶² Arrietan *erozenbait* hibrido itxurako hitza ere bai. Adoaingo Aita Estrebanek *ceinai guizoni* idatzi zuen behin eta *ceinai curiositate* beste aldi batez, gurtxienez.

¹⁶³ Lerro honetan gazt. 'volar' dugu. Ilurdozko berriemaileak *bolatu* eman bazigun ere, bere herritik iparraldeko, Zaiko baserrian sorturiko Aniceto Azkarateri zera bildu genion 1987an: *Leanótzik egátu nitzen Ilárrázerá... amaldá-amabórtz urretan*. Mendebalderantz joanez gero, Odietako Ignacio Larraia ziauriztarari ere berdin: *egátzen da / egátu de*.

¹⁶⁴ Lizarragaren lanetan 'egia' -a organikoduna da, antza: *Baña datorreláic eguiarén Espiritu-gáira, arc eracuisico-díce égúia guciá* (SJ-XXVI-13). Larrainzarrek, ordea, ez bide zuen horren premiarik ikusi, *lau egí* eman baitzuen (Garesen, Oltzan eta Gonibarren bildu bezala, bestalde). Ilurdozten, azkenik, bi eratara aditu genuen: *egie... egie ebekin*, alde batetik, eta *egi bet*, besterik.

¹⁶⁵ Adoainen, baina, aditzaren nominalizazioa 'egoitea' dugu eta ez 'egotea', beste herrietan bezala: *ceygatic arrenizat etzen bertze díverstonic Elizan egoitea eta matz confesatzea baicic*. Gauza bera *eráitea* eta *izáitea*-rekin ere.

¹⁶⁶ Arrietan, gainera, 'kir-kir' ura irakiten egotearen onomatopeia gisa: *kaldéra batean... úra... kir-kir-kir déna*.

Zabalégi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1885	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	eguerdi; gau erdi			eguerdi	eguerdi; gaberdi	eguerdi
	eguerri; pentekostes		eguarri; urteberri ¹⁶⁷		urteberri	eguerri / <i>z</i> ; mendekoste
egun	egun, gaur; biar; etzi ¹⁶⁸	egun, gaur; biar; etsi	egun, gaur; biar; etzi	egun; gau	egun; biar; etzi	gaur; biar
gau	egun; gau ¹⁶⁹	egun; gau	egun, eun; gau	egun; gau	egun; gau	egun; gau
eskues; fabores	egunes; gabas, gauas	lurras, lurras	egunes; gabas ¹⁷⁰	zeruas; lurreas	egunes; gabas	egunez; gauaz
egunoro	egunoro; aldioro ¹⁷¹		egunero; aldiro; urtero	aldiero, mementuero	egunero; aldiro; urtero	egunoro; aldioro
	egunorozko ¹⁷²		egunerozko	egunerosko, egunerozko	egunerosko	
	egun, eun; mila, milla	egun, mila	egun; mile		egun; mila	eun; mila
	eizi; basurde; erbi ¹⁷³	eiza; basurde; erbi	eizi; aizi; basurde; erbi		eizi; basurde; erbi	erbi
ekarri	ekarri / eraman, erman ¹⁷⁴	ekarri / eraman	ekarri, kari / eman, man	eman	ekarri, kari / eraman	eraman
eliza; gurutze	eliza; gurutze; guruze	eliza; gurutze	elize; gurutze	eliza; gurutze	eliza; gurutze	eliza; gurutze ¹⁷⁵

¹⁶⁷ Ilurdotzen, *egoarri* ere bai. Arrietan hitz hau bildu ez bagenuen ere, Hiriberri auzo herrian bai, *eguerri* eman zigtenen.

¹⁶⁸ Lerroan: 'hoy', 'mañana' eta 'pasado mañana'. Elkanoko bi zutabeetan *egun* / *gaur*-bikotea digu esanahi berarekin, Ilurdotzen ere guk bildu bezala; trantsizio-lekua dirudi inguru honek zera honetan, hemendik mendebalderantz *gaur* bakarrik dakusagu gure materialetan eta ekialderantz, ordea, *egun* baizik ez. Inoiz, baina, *gaur* hitza 'esta noche' adierazteko ere erabili izan da. Elkanoko Lizarragak, honela: *Naibes, Jauna, gaur nor denagitic Guardatu libre gu gaitz gacietidic (OILL)*. Hau herri horretan bakarrik ez, Arrietako berriemalleak ere inoiz erabili baitzuen eta Artzibariko Espotzen, halaber, Uritzik hurbil, *etiórriko da gáur* ('esta noche') eman zigtenen.

¹⁶⁹ Lerro honetan: 'día' eta 'noche'. Ilurdotzen eta Arrietan, mugatzean, *gaba* eman zigtenen; Uritzko doktrinan ere gauza bera dakusagu: *gabasco amabietaic goiti*, eta, Adoaingo materialetan, orobat, gauza bera: *Alferric gabaren ilunasuna bitazenduzau...* Elkanoko *Koplak* lanean, baina, *Héria despetizerácoan gauóro* dakusagu.

¹⁷⁰ Ilurdotzen gehienetan horrela, baina *egunez* eta *gauzez* zein *eunes* eta *gabes* bildurik gauden; Arrietan, baita *egunez* eta *gabaz* ere. Uritzko testuan, honela: *nere animas, nere gorpuzas, ceruas, lurreas...* Ez dago, agian, sobera oroitaztea ezen Ilurdotzen inoiz *lurrea* eman zigitela, itxuraz bi alditan mugatua, era horretan bukaturiko beste hitzen batekin batera. Adoainen, leihatilako hitzez gainera, *buruz buru* alde batetik, baina *begis begi* bestetik.

¹⁷¹ Elkanon, *aldiero* ere bai, baina *aldioro* baino gutxiagotan.

¹⁷² Elkanoko Lizarragak, halaber, *egunorosko* / *egunoroko* erabili zuten, kasuen arabera.

¹⁷³ Lerroan: 'caza', 'jabal' eta 'liebré'.

¹⁷⁴ Lerro honetan: 'traer' eta 'llevar'. Elkanoko leihatila honetan *eman* ere bai; Lizarragak, bestalde, *-n* bukaerako aditz honen geroaldikoa irudikatzeke, 'ermako' erabiltzen zuten: *Jauna, orréc quendu-barimbadi, erman-bezáda non paratu-duén: eta nic enamacodút (SJ-XX-15)*. Arrietan, honetarako, *emain* / *main* dakusagu gure oharretan (*eman* / *man* era laburretatik direnak), Ilurdotzen ere bilduak.

¹⁷⁵ Aita Estebanek, behin bederen, *curutzean* erabili zuten, baina, Ondarrak prestatu Adoaingo lanean, hasierako *e-a* etzanik agertzen da, aldatua izan zen seinale, antza.

Zabalegi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdoz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	elkar, elkarreki	elkar	elkar, elkarrekin	elkaren artean	elkar, elkarrekin	elkarrekin VE
	elheba; osaba ¹⁷⁶	elheba; tio	elheba; tio, osaba?		elheba, ilte; osaba	
ellegatu	ellegatu, allegatu	ellegatu	ellegatu, allegatu	allegatu	ellegatu, allegatu, lletatu	arribatu ¹⁷⁷
	eltze; elze	eltze; kazola; marmita	eltze; kazola		eltze; kazola; marmita	
eman	eman / (er)rezibitu	eman / errezibitu	eman, man ¹⁷⁸	eman / errezibitu	eman, man	eman / errezibitu
	emanikako erremedio ¹⁷⁹				biarrekkako gauza	bustirikako gelaixo
	emaste, emaste ¹⁸⁰	emaste	mazte, mazteki	emaste, emaste ¹⁸¹	mazte, mazteki, emakume	emazte, emazteki
emen; an	emen; or; an	emen; or; an	emen; or; an, gan	emen; an	emen; or; an, gan	emen; an
	emengo; orko; ango	emengo; orko; ango	emengo; orko; ango		emengo; orgo; ango	
andik	emendik; ordik; andik	emendik; ortik; andik	emendik; andik	andik	emendik; ordik; andik	emendik, andik
oyan berean	an berean; leku berean ¹⁸¹		sukeldan berean		or berean; leku berean	an berean
entendatu, konprenditu	entendatu, aditu ¹⁸²	entendatu	entendatu, entenditu	entendatu, entenditu	entendatu, kompren(d)itu	
	entregatu, eman ¹⁸³				entregatu	entregatu
disponitu	erabaki, disponitu			disponitu	disponitu	erabaki VE

¹⁷⁶ Gazt. 'sobrino/a' edota 'nieto/a' eta 'tio'. Ilurdoz eta Arrietako adibideetan, *elheba* 'sobrino'.

¹⁷⁷ Frants. 'arriver' aditzetik zuzenean ekarria, argi dagoenez.

¹⁷⁸ Aferesia dela-eta, Ilurdozen *man* askoz gehiagotan *eman* baino. Adoainen, 'eman' izanik ere, 'emaitera' dakusagu: *tornatzendire bearrri ondoco erudelac emaitera*.

¹⁷⁹ Hurrengo hitzarekiko lotura ageri da hor; hona adibidea: *Itzulicio bere aitari vista ainguruac emanicaco erremedioas* (Apecechea, *FLV*, 50). Adibide gehiagorik bada Lizarragarengan, are hitzen ordena aldatuak ere: *becatu inicacoac* (Dotr-1), kasu. Arrietatik hurbil ere, Hiriberrin, honen aurreko saioan jasoriko adibide bat dugu: [serpiente horrek] *óri... ozk'iten dñ dè-neri; arrepatnikako árdia*.

¹⁸⁰ Leihatila honetako *emaste* / *emaste¹⁸¹* horiez gainera (gazt. 'mujer'), *emakume* ere bada; *emaste*, halaber, 'esposa' izan daiteke, Lizarragak esanahi honekin maiz erabilia. Adoainen ere *emazte* 'esposa' da eta *emazteki* 'mujer'.

¹⁸¹ Leku-adberbio zein erakusle indartua dugu hemen. Ilurdozen *sukalde berean* ere bai. Adoainen *dembora verean* ere bai, baina baita eremu hauetatik kanpoko *bertan, puntuan bertan* eta *lecu artan bertan* ere.

¹⁸² Apececheak, kasu honetan adibiderik eman gabe, *Aditu: entender dela dio* ('Trat). Ilurdozen eta Uritzen, berriz, *konprenditu* ere bai.

¹⁸³ Lizarragak 'eman' ('entregatu' hitzaren sinonimotzat) behin baino gehiagotan erabili zuen; hona lagin bat: *S. Bernardo erresolutoric emátera Jangoicoi gucis erreligiónean...* (DCC).

Zabalegi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
eraiki	eraiki; azaro ¹⁸⁴	eriki	ereki; edeki; azaro		ereki; aro	
erakutsi, irakutsi	erakutsi, mostratu ¹⁸⁵	erakutsi, mostratu ¹⁸⁵	erakutsi*	erakutsi	erakutsi, irakutsi	eraku(t)si, irakutsi
	eraunsi; atertu ¹⁸⁶	eraunsi	eraunsi; aterdu		eraunsi; atertu	
	euskara, uskara; erdara	erdera	euskera; erdera	uskara	euskara / erdera; ergera ¹⁸⁷	
erdetsi, erdetzi, logratu	erdetsi, erdetsi ¹⁸⁸	erdetsi	erdetsi, eretsi?	erdetsi, alkanzatu	ertsu	ardetsi
erdi	erdi; oso, txoil ¹⁹⁰	erdi; oso	erdi; erdizke; oso	erditsu; oso ¹⁸⁹	erdi, erdizka; oso	erdi; oso, txoil ¹⁹⁰
	erdisu, anditsu	indartsu		erdisu	gizetsu	jakinsu, doatsu, kartsu
	erditu, libratu ¹⁹¹	erditu, libratu	erditu, libretu	erdi, erditu	erditu, libratu	eman mundura
asiaş geros	erdiaskeros ¹⁹²			erdias geros		denaz geroz
	erri; erri beatz; azazkal ¹⁹³	erri; beatz; azazkal	erri; azazkal	erri; erri beatz	erri; azazkal	

¹⁸⁴ Lerro honetan: 'sembrar' eta 'sementera'. Ilurdorzen *azaroa es... el tiempo de la siembra, azaroa, si* eman ziguten.

¹⁸⁵ Ondarrak prestatu lanean, *erakutsi = enseigner* eta *irakutsi = montrer*. Arrieta eta Adoaingo *irakutsi* hori ere ('mostrar, enseñar') Aezkoan bada, 1991ean Ariako Florentina Maisterra andereari honela bildu genion-eta: *erdi zé zaldit bat, ta... peinátik béra, ta ordúan zaldia gelditu zé, ortzak irakutsiz, ta ordud(n), bertzeát idúritzen tsaitzeó irris zególa*.

¹⁸⁶ Lerroan: 'toimementa, tempestad, borrasca' eta 'escampar'. Ilurdorzen, *éldu dé eráunsi bet*.

¹⁸⁷ Arrietan, *euskera / uskera* ere bai.

¹⁸⁸ Lerro honetan: 'lograt, consequi, alcanzar' dugu, eta Uritzen ere halatsu, honako testuinguruan: *izangaicen digno erdisteco Jesucristoin promesac*. Arrietakoak era laburtua dirudi: *Bah! egún batén... gatik, zeníko bidéa... nóla bérzaa?... ertsíko da*. Adoaingo *ardetsi*-k, azkenik, lerroko gainerako *erdetsi*-en alboan, Lapurdiko lexikoaren jatorria agerian uzten du. Zabalegin eta Uritzen, azkenik, *consegúitu* moduko mailegua ere bai.

¹⁸⁹ Hona Uritzko kristau-ikasbidearen sarrera: *Arco Vallea componen da oguei eta vorz erri eta caserioquin, Urizzo erria dago erdisuan, eta Vallecó uscara dá, nic oray explicacen duten vezala*. Adoaingo *txoil* hori, 'oso' hitzaren sinonimotzat gure ustez, honako esaldian: *emen veren becatuac atitorzindituztenec ez choilqui libro eta barcatuic* –'bekaturik' behar luke– *gabe, bai eta ere veren Yincóaren gucian itzuliric joaten dire*.

¹⁹⁰ Adoainean *choilki* dago idatzirik; leihatilan, agian, *xoil* idatzi behanko genukeen.

¹⁹¹ Lerroko bi hitzak dira 'parir' adierazteko. Hona Uritzko adibidea: *Bai, jauna, erdi uáño len, erdiccan eta erdias gueros veti virgina*. Arrietako berriemaileak bi hitzak bereizi zituen: *libratu da emakumea eta érdi da animalia*. Elkanoako Lizarragak, inoiz, *argira eman erabili zuen (DCC)*, baina era honek ez dirudi jatorria, erdal moldetik ateratako itzulpena baizik. Bestelakoa da Adoaingo lagina: *nola Maria Sainduac dembora arribatucenean emanzen mundura Jesus Saluatazailea guaren erdian erdian bortalcho batean, bi animalen artean*.

¹⁹² Leihatila honetan: 'después de parir' (Serm-5). Lizarragak, halaber, *bataiatuas geros* erabili zuen inoiz, baina, beste aldi batez, *jaisgeros*, tarreko *a-rik* gabe. Uritzko doktrinan, leihatilakoaz gainera, *bataiatuas guerostik* ere irakur daiteke eta Adoaingo izkribuetan *aimbertze sufritu ezgueroz*.

¹⁹³ Leihatila honetan 'dedo', 'dedo pulgar' eta 'uña'. Bigarrenetako, baina, *beatz* bildu zuen soilik Bonapartek herri berean.

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdoz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	eri, eritasun, gaiz ¹⁹⁴	eri, gaiz	eri, gaiz	eri, gaiz	eri, eritasun, gaiz	eritasun, gaiz
	ematu, idatzarri ¹⁹⁵				ernatu	idatzarri
	ero, eratu, zoro, zoratu ¹⁹⁶	ero	ero, edo	ero, eroti	ero, erotu, zoratu	ero
	erori	erori, erot ¹⁹⁷	erori, edodi, bota	eroti, eroi	eroti, bota	eroti
	erosi / saldu	erosi / saldu	erosi, edosi / saldu		erosi / saldu	erosi / saldu
	erostun; ikastun		erostun; zordun		euskaldun, uskaldun	
	erran, esan (!)	erran	erran, edan (!) ¹⁹⁸	erran	erran	erran
	erraten dute, errateunte ¹⁹⁹	ikusten dugu; errateunte	erraten dute; emateute	ematen dute; ien dute	erraten dute, errateunte	erraten dute
	erre; pispildu; tostatu ²⁰⁰	erre	erre	erre	erre; pixpildu; tostatu	erre
erregi; erreina, erreña	erregi; erreina, erreña	erregi; erreña	erregi	erregina	erre(g); erreña	erregi; erreina
	erregu		erregu; almute		erregu; almute ²⁰¹	

¹⁹⁴ Lerroan: 'enfermo' eta 'enfermedad, mal'. Lizarragaren izkribuetan *gaiz / gaiz 'mal' izateaz gainera, 'maldad' ere izan daiteke. Uritzko *gaiz* hori 'mal', are zentzu espirituallean ere: *Jangoicoac libra gaizala gaiz, peligro espirituale eta corporal gucietaic*.*

¹⁹⁵ Leihatila honetan 'reanimarse, despertar' dugu (*Koplak*), alde batetik, eta 'despertar' bide da, agian 'espabilar'. Hona adibidea, Eguberrietako kantu baten baitan guri iritsia: *Jaiki, jaiki artzañak, ernatu goizean, Belengo ziudadean Jesus jaiio da tu*. Hona, azkenik, Adoaingo lagina: *eta gauaz orduac joitzenzuenean Aingueruac idatzarri arazenzuten*.

¹⁹⁶ Lerroan: 'loco' eta 'enloquecer'. Baina *xoro* eta *xoratu* xumegariak ere ohikoak dira Lizarragaren lanetan, 'embobado, embelesado' eta 'encantar, embobar' esanahiez.

¹⁹⁷ Elkanoko Larrainzarrek emaniko datuetan, 'eror' ez ahalera-, subjuntibo- edo agintera-kasuetan bakarrik: *mai peru eror da moduko adibidea* ere baitugu.

¹⁹⁸ Ilurdozko bertemallean mintzo: *Si, pero... así, hablando en conversación, por ejemplo, pues... más suave, más bonito, edan: nik edaten dut (yo lo digo, alegia)*. Ez dugu uste, baina, hark horrela esanagatik, balizko aldaera hau zabaldurik egon denik, ez baitugu beste inon aditu. Elkanoko *Koplak* delakoan, behin bederen, *essan* bat dakusagu: *Arus essanció*, baina gauden hau ere ez dela kontuan hartzeko modukoa.

¹⁹⁹ Elkano eta Arrietakoak dira, emaitza hauetan, alde batetik metatesia eta bestetik laburketa, biak batera darakusten herniak. Hona Arrietako adibide pareak: 1) *kisteunzi zerbái;* eta, 2) *jol ezabái nóla iráuteunkén ere*. Ondarrak prestatu lanean ere, antzera: *xataunte, ikusteuntzu eta ikusteunk*.

²⁰⁰ Lerroan: 'quemar, asar', 'abrasar' eta 'tostar'. Hona Arrietako adibide-pareak: 1) *ta, errézen... balimáze... segidoan? pixpildu... bázen segidoan?* Eta, 2) *Ori [ogia], sarrík... labéan, ta beála tostázen dá*. Elkanon, *kiskildu* ere bai.

²⁰¹ Lerroan: 'tobo' eta 'almud', laboreak neurtzeko kurxa berezi batzuk.

Zabalegi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
erreñu	erreñu, erreñu ²⁰²		erreñu	erreñu, erreñu, erreñu		
erremedio, erremediatiu	erremedio, erremediatiu		erremedio	erremedio		erremedio, erremediatiu
errespondatu ²⁰³	errespondatu	respondatu		erresponditu	kontestatu	errespondatu, iardetsi
	erresto ²⁰⁴		erresto, errestu	erresto		
	erri; sortuerri ²⁰⁵	erri	erri	erri	erri; artorri	erri
	errika; ardatz; istupa ²⁰⁶	errika; ardatz	errika; orraz; irtupa*			ardaz VE
errosario	errosario, arrosario		rosario	errosario	errosario, rosario	arrosario
	errotia; erreka; zubi	erreka; zubi	errotia; erreka; zubi	errotia; erreka; zubi	errotia; erreka; zubi	errekaxo VE
	errotazai; artzai; itzai		artzai; itzal ²⁰⁷		errotazai; artzai; aurtzai	
	errueda		errueda, erroda, errota ²⁰⁸		txirrika	
	errun, paratu ²⁰⁹		errun, paratu		paratu	
	ertze, ertze; gibel ²¹⁰	ertze; gibel	ertze; gibel		ertze, ertze; gibel	
eskatu	eskatu (eske joan)	eskatu	eskatu (eske joan)	eskatu	eskatu (eske joan)	eskatu
	ur eske; lagun billa ²¹¹		ur eske; limosna eske		ur eske	arren bila, ostatu bila

²⁰² Gazt. 'reino', alegia. Elkanoko Larrainzari ere *erreñu* bildu zitzaion, baina 'rayo' esanahiaz.

²⁰³ Zabalegin eta Adoainen *erresponditu* ere bai; eta azken herri honetan, baita *iardetsi* ere. Hitz hau Azkuek, besteak beste, Esteribariko lexikoan kokatu zuen.

²⁰⁴ Elkanoko DCC-n 'huella, marca'. Ilurdotzen badugu adibidea: *Irózko tzakúir bét... juan tze (...), erreñto... azarién erreñtu... gibélen*.

²⁰⁵ Elkanoko *sortuerri* 'lugar de nacimiento' dugu; Arrietako *artorri*, berriz ('arto-herriatik, antza), 'campo sembrado de maíz'.

²⁰⁶ Leihatila honetan: 'ruca', 'huso' eta 'éstopa'. Lizarragaren lanetan zein Ilurdotzko materialetan *errotatu* 'hilar' ere badugu.

²⁰⁷ Ilurdotzko *itzai* hori *itzea* hitz mugatutik atera dugu, gazt. 'boyero'.

²⁰⁸ Lerroan: 'rueda'. Ilurdotzen *errotain kostillek* 'los radios de la rueda' ere bai. Arrietako *txirrika* gupil txikia bide da, ume batek, ibiltzen ikasteko, erabili ohi duen taka-taka bate-na, adibidez.

²⁰⁹ Gazt. 'poner (huevos)'. Ilurdotzen ere hitz sinonimo pareka eman ziguten, baina euskara ongien ezagutzen zutenek *errun* esaten zutela agerian utziz.

²¹⁰ Lerro honetan: 'intestino' eta 'hígado'.

²¹¹ *Onen billa / arren billa* edota *ardi galduarén billa* ere bai, genitibo baten atzetik, alegia.

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdortz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
grazia / desgrazia	esker, grazia / desgrazia ²¹² esker milla	esker, grazia	esker, eskar esker mil, eskar mila ²¹³	esker, grazia	esker, bearrrik esker mila	grazia / desgrazia
ofrezitu	eskindu, ofrezitu, ofratu eskoba	ofrezitu	eskindu ilaraka, ilerraka; eskoa	ofrezitu	eskindu, ofrezitu ilarreskoa; eskoa	ofrezitu, ofrezitu ²¹⁴
esku	esku; beso; ukondo ²¹⁶ esne; elle	esku; beso; ukondo esne; elle	esku; beso; ukondo* esne; elle; kapar	esku esne	esku; beso; ukondo esne; ezne; elle; kapar ²¹⁷	esku; beso
espiritu	espiritu; Trinitate ²¹⁸	espiritu		espiritu; Trinitate	espiritu	ispiritu, izpiritu
	estali, ezali, tapatu	estali, tapatu	astali, tapatu; tapa		estali, tapatu; estalki	estali, tapatu
	estabil(l)de; artegi ²¹⁹	estabile	estabil(l)de; korrale		estabile; artegi, korrale	estalbi
	estrazia; paxu ²²⁰		estrazia; paxu		estrazia; paxu	
	estul; atija	estul; atija, atija in ²²¹	estul		estul; atija	estul egin VE

²¹² Leiharila honetako *esker* hitzak esanahi zabala izan dezake, 'zorionez', gisa-edo har baitaiteke zenbait testuingurutan: *Esker Ama Smari, espatzue uzi galtzera sekulakos* (Aita Policarpo, FLV, 29). Arrietan bildu *bearrik* hitzari ere antzeko esanahia ikusten uste dugu: *Beárrrik, esküan daukezién gáusa oké bestzénas...* Adoainen, *doakabe* eta *malur* 'desgracia' ere bai, azken hau erdal mailegua, zeina, bide batez esanik, Lizarraga Elkanokoak ere inoiz erabili zuen.

²¹³ Ilurdortzen, *eskerrik asko* ere bai.

²¹⁴ Adoaingo ofrezitu hitza bitan agertzen da: *an nola ofrezituzuen vere semea*, alde batetik; eta, *cer andiac dirén Jesus gure Aitac ofrezitendauzquignas*, bestetik. Utergako abade be-riandarrak, dena dela, *ofratu* erabili zuen, Elkanokoak bezala.

²¹⁵ *Ilaraka* eta *eskoa* gazt. 'brezo' eta 'escoba' dira, aurrenekoa, leku askotan, bestearen zereginetarako erabiltzen bada ere. Arrietan *ilarr-eskoa* 'escoba de brezo' eman ziguten.

²¹⁶ Lerroan: 'mano', 'brazo' eta 'codo'. Adoaingo VE-an *ucalondoa* 'codo del brazo' dakusagu, baina hitz hau aditu ahal izateko aski mendealderra jo behar da, Sakanaraino guntxie-nez.

²¹⁷ Leiharila honetan: 'leche', 'lana' eta 'garrapata' (ardien bizkarroi ezaguna). Ilurdortzen, *elle* mugatugabea eta *ella* mugatua.

²¹⁸ Lerro honetan: 'espiritu' eta '(San)úsima Trinidad'. Lizarragaren lanetan *ispiritu* ere bai, baina *espiritu* baino gutxiagotan, Aita Policarpok ohartarazi bezala. Adoainerako, agian, *ispiritu* bertagokoa *ispiritu* baino eta hau, berriz, gehiago Lapurdi alderako. Bigarren hitzari dagokionez, Elkanon *Trinitate / Trinitate* dugu eta, DCC-an, *irurtasun* ere bai: *Trinitate edo irurtasun admirabilegruan*. Urizko doktrinan hitz honen era sinkopatu dugu soilik, inguru hau guztia besarkatzen duen euskalkian ohikoa den bezala.

²¹⁹ Lerroan: 'establo' (Ondarraren lanean 'caballeriza' gisa bildua) eta 'redil'. Adoaingo *estalbi* hori fr. 'étable' dela dio Lhandek, lat. *stabulum*-dik.

²²⁰ Lerroan: 'trillo' eta 'fajo'. Ilurdortzen *paxu* 'fardo' eman ziguten eta baita *estrazie* ere, baina gaude berriemaileak ahoskera hobetu zuela honela, horren premiarik ez zegoenean.

²²¹ Leiharila honetan: 'tos', 'estornudo' eta 'estormudar'.

Zabalegi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
etorri	etorri; etor; eldu ²²²	etorri, etor, torri; eldu	etorri, torri; eldu	etorri; eldu	etorri, torri; eldu	etorri; eldu
geroztik	etorrikerostik			bataiatas gerostik	geroztik, gerostik	
	etsai, enemigo, kontrario	enemigo	enemigo	etsai	etsai, kontrario	etsai
etxe	etxe; etxalde ²²³	etxe	etxe, etxa, itxe, itxa	etxe	etxe, etse, itxe; etxalde	etxe
	etxez etxe; karrikas karrika		etxez etxe; ataris atarie		ataris ataris; karrikas karrikas	etxez etxe; karrikaz karrika
etxeki	etxeki, itxeki / itzali ²²⁴	etxeki / itzali	biztu, bistu / itzeldu		biztu, bistu / itzali	
	etxiden, etxi ²²⁵	esperatu	esperatu	esperatu	esperatu	esperatu, ixedon VE
	etxokandre, txokandre ²²⁶		txokandre, txokandre		txokandre	
	etzan, etzin, erazin		etzan, etzin		etzan	etzan VE, etzin VE
exemplo	euri; elur / urtu	euri; elur / urtu	euri; elur / urtu		euri, eguri; elur / desin	euri
	exemplu, molde			ejemplu		etsenplo, molde
epaita; epadute	ez + b; epazara; epadugu		epaze; epaduzu ²²⁷	epadugu; epadute	ez + b; epazara; epauzu	epazen; epaduzue
etza, esta, ez dezan ²²⁸	ez + d; etza, esta	etza	etza; ezute	etza; ez dezala	ez + d; etza, esta	ez ditut; ezut, estut

²²² Elkano Lizarrairen leihatilako *etor* hori ez dago, jarraiko adibideetan, ez ahalera-, ez subjuntibo- ez agintera-kasuan, pentsa litekeen moduan: 1) *nor edo nor etoridire emádena noticia bere dichas* (Serm-1); eta, 2) *nondic etoro baita asquen juicio egumeán* (Serm-1). Herri bereko Larrainzarrek emaniko datuetan ere antzera: 1) *erriain barnetik etor da*; eta, 2) *nerre gibeletik etor da*. Ilurdotzen *itorri* ere aditu diogu inoiz bertako berriemaileari, baina oso bakan da. *Eldu*, *beriz*, *gazi*. 'Ilegar, acceder, venir' da (DCC). Ez da, haatik, ekinza burututzat jotzen; hots, *eldu da* 'badator' da, eta ez 'iritzi da'. Zutabe guztietan esanahi bera du: *eldu dena*, *gazi*. 'el/la que viene', alegia.

²²³ *Ettxalde*, Azkueren arabera (B-ar, BN, Sal, G), *casa de aldeia, hacienda propia*: *maison de campagne, propriété* da. Hona Elkanoko adibidea: *Echálde óna dú, dóre óna dú* (Serm-1).
²²⁴ Lerroan: 'encender' eta 'apagar'. Hona Zabalegi adibidea: *eta echequizazu nere bioza zure amorioan*. Ilurdotzen eta Arrietan, aldiz, *biztu / bistu / bixtu* bildu genuen. Gure oharrei axaleko behatu bat eman-eta, *etxeki* Imozko Beratsainen kausitu dugu eta, hortik mendebaldera, ez hitz hori bera baita, horren antzekoak ikusten ditugu Larraungo Madotzen eta Sakana-Ergoienako zenbait herritan.

²²⁵ 'Itxaron' dugu leihatila honetan; hona adibide pareak: 1) *bañia arréc botacine lurreán, ta cego ebidéten cer manatzencion sandac* (JMsB); eta, 2) *Echi guibát, goratucodá teatroa, busicodá bacócha ichunagotéitac ta...* (Serm-1). *Esperatu* erdal maillegua ere erabili zuten inoiz Lizarragak. Adoaingo *ixedon* hori 'aguardar' da VE-ren arabera (Azkuek, *ixeden*-ekin batera, 'B-ix, G'-tzat jo zuten); *zalanztagarria*, *beraz*, geure ustez.

²²⁶ Elkanoen, *etxokandre* ere bai.

²²⁷ Ilurdotzen, barzuetan, bokalarreko *-d-* erroia ere bai: *epauzu, epauzie*.

²²⁸ Zabalegin *z + d = sf* da, ohiki: *esta, estinare, estu...*; bestelako ematzak urriagoak baitira. Elkanoko Lizarrairen lanetan, Uritzko doktrinan eta Arrietako geure oharretan, halaber, *-zt-* zein *-st-* dugu noiznahi.

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdortz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	ez + g: ez gara, ezkara	ezkara	ez gara	ezkartzala	ez + g: ezkara, eskara	ezkara
ez nazazula	ez + n: ez naiz; ez nue	ez naiz	enaiz, ez naiz; enue		ez + n: ez naiz, enaiz ²²⁹	enaiz; ez nuen
	ez + z: etzara; etze	etzara	etzara; etze	etzen	ez + z: etzara; etze	etzara; etzen
	ezari, jari, paratu ²³⁰		paratu, padatu, paatu	paratu	(e)zari, jari, paratu	ezari, jari, paratu VE
	ezaundu, zaundu ²³¹	ezautu	zaundu, zautu	ezautu	ezaundu, ezautu, zautu	ezagutu, ezautu
ezi ya zegola guatzean	ezi: yago ezi grazian ²³²		denak ezak aite	ezi Jangoicoa ofenditu		geyago ezak salbamendua
	ezin atra; ezin soportatu		ezin erosi [*]		ezin atra; ezin soportatu	ezin lagundu; ezin sufitu
	ezin entenda dezake ²³³				ezin kendu agotik	ezin espera dezake
	ezker / esku ²³⁴	ezker / eskuin	ezker / eskuin	ezker / eskuin	ezker / eskuin, eskuin	
	ezkondu, ezkontza	ezkondu, ezkontza	ezkondu, ezkontza	ezkondu	ezkondu, boda	ezkondu, ezkontza VE
	ezpata; puñale; lanza		sable; puñale		puñale	ezpata; lanza
	ezti; argizari; kandel ²³⁵	estri; argizari	ezti; argizari; bela		ezti; argi(t)zari; bela	ezti

²²⁹ Arrietan ez naiz askoz ere guxiagotan enaiz baino, Ilurdortzen bezala.

²³⁰ Lizarragak, gainera, Aezkoan ezaguna den 'imini' maiz erabili zuen eta, inoiz, 'ipini' ere bai. Hona adibide bat: *iminitió izéna Renato* (Serm-1). *Jarri*, berriz, ohiki 'sentar' esanahiaz erabilia ere, inoiz ponterse, situarse, collocarse' gisa dakusagu: *albadatq<u>e jarri belaurico* (Serm-1). Adoaingo adibidea honakoa da: *Yuyec eguinduen gucia claro beguien aintzi-nean jartzén dionean*.

²³¹ *Zaundu ez da ohikoa Lizarragarengan, ia beti ezaundu erabili baitzuen; inoiz, ezagutu.*

²³² Elkanoko ezi hau, enketarako, 'baino'ren pare dugu: *aguán ori andiágo dá eci gure aita Abnau, ecin il-baice?* (SJ-VIII-53), baina kausal gisa ere agertzen zaigu maiz: *Baña gic, ene fiélaç, beira nola gabiltzan, non frincatzentigun óñac; ezi bein erorenbagára leccórtan, eziá erremedioric eternidádaan.* (DCC); baita erabileria handiko juntagailu gisa ere: *Obeuzu begi bateki sartu glorian, ezi ez bieli erori sulezean.* (Aita Policarpo, FLV, 31). Zabalegiko predikuan kausal gisa dugu 'ezi' hori: *eci botacembadueré alorrean gari ona... edota cideyuela andic, eci ya zegola guacean errecogituric*, kasu. Ilurdortzko ezki, ordea, 'izan ezlik'en pare-edo dugu: *yoáin gerá denak lanéra, ezki áite, áitéa 'nemos todos a trabajar menos el padre*. Adoaingo lagin osoa, azkenik –hau ere Lizarragaren aurrenekoaren antzera–, honakoa da: *guyéyago maitatzendute verén fama eci verén salbamendua!*

²³³ Lizarragak, ezi horrek inoiz jokatzén zutenan, haren ondoan aditz-oina gshi laguntzailea idazten zuen. Adoainen dugun lagina ere gisa berekoa da, baina ez, ordea, Arrietakoa; herri honetan ditugun *ezin* guztiak jokatu gabekoak dira: *ezin aguantatu / ezin soportatu / ezin oroiu / ezin pastu...* adibidez.

²³⁴ Lizarragarengan, agian 'eskuie': *escuíco eri beatzas irur gurúze egútea...* (DCC). Urizko izkribuan hori bera ere badugu, gainera: *Aita eternoaren escuyeco aldean*. Ilurdortzen, berriz, *eskuie* eman zigtuen, mugaturik, eta Arrietan ere *eskuie*, -e mugatzailea, herri honetan, ezohikoa izan arren.

²³⁵ Lerroan: 'miel', 'cera' eta 'vela'. Adoainen, *ezti* 'dulce' esanahiaz dugu: *balidin espacen erorizen euri estibat* (J-Izkr). Elkanoko Lizarragak, *argizari* / *argizagi* era *ezti* / *estri* aldaerak erabili zituen.

Zabalegi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdutz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	falsu, falsuki	falso		falsu		falso, falso
	fama, famatu		fama	fama	fama	fama
	feria; merkatari		ferie; merkatu		feria; merkatu	
	fiatu, konfiatu			konfiatu	fiatu	fidatu
	fistu, fixtu, txistu ²³⁶		fiztu in		fss... (egin)	txistu egin /E
	fresko, freskatu		fresko		fresko, freskatu	
fruktu	fruitu	fruitu	fruitu	fruitu, fruito	fruitu	
		fuña; kartagorri ²³⁷			fuina	
gabe, bage	gabe, bage	gabe, bage		gabe	gabe	gabe, bage
gañan	gain, gañean, gañetik	gain, gañan, ganetik	gañan, gañetik	gañan, gañetik ²³⁸	gañean, gañetik	gañean, gainetik
	gaitz, gaistakeria ²³⁹		gaitz	gaitz	gaitz, gaixtikeria	gaitz, gaistakeria
	gaixo, gizaigo ²⁴⁰		gaixo, pobre		gaixo	gaixo
gaizki / ongi; obeki	gaizki / ongi; obeki ²⁴¹		gaizki / ongi; obeki	gaizki / ongi; obeki	gaizki / ongi; obeki	gaizki / ongi; obeki
gaisto / on	gaizto, txar / on ²⁴²	gaixto, txar, kokin / on	gaizto, gaixto, txar / on	gaisto, txar / on	gaixto, txar / on	gaisto, txar, txar / on

²³⁶ Elkano *fixtu / fixtu* 'silbido, chasquido' dugu: *Ango azoteén fixtuac* (Serm-1) eta Ilurdozko *fixtu in silbar: izerra dago fixtu ten, kantu ten*. 'Izerra' hitza (gazt. 'el grillo'), halere, ez zaigu ziurra iruditzen.

²³⁷ Lerroan: 'garduña eta 'ardilla'. Azken honi dagokionez, Ilurdoztik aski hurbil, Erroibar aldean, *burxintze* bildurik gaude Urnizan eta *borxintze* Gurbizarren. Arrietan, horretarako, *fitútsa* eman ziguten, baina hori ez bide da horrela, Martin Marmaun gurbizarrak, 1987an, *fitútsa* 'turón' esanahiaz eman baitzigun.

²³⁸ Uritz *n*-rekin ere bai, behin bederen: *Maitaceo gure Jauna gauza gucien ganetic...* Adoingo lagin busti gabectan, agian, lapurteraren eragina egon liteke.

²³⁹ Elkano Lizarragaren ekaieran *gaixtakeria* ere bai eta Arrietakoetan *gaixtikeria*.

²⁴⁰ Lerro honetan: 'pobre, infeliz, desgraciado'. Elkano, honela: *Non dãmázie eri gaixogoi gaixogortan?* (Serm-3).

²⁴¹ Elkano *gaizki* 'mal, malamente' eta 'maldad' izan daitezke; *ongi* 'bien, buenamente' eta 'bondad', gainetako herrietan bezala. Hona azken honen adibide bat Urizko doktrinan: *eta alcanaztu Jangoicoain ganic ongui espiritualac eta corporalac...* Adoainen ere, *gaizqui andia* 'el enorme mal' edo dugu. Elkano Lizarragarengana itzuliz, *onki* dakusagu halako batean, Erroinkariko ibarrean behiala erabili bezala eta, Arrietan, bukatzeko, *gaixki* eta *gaizki* gisako aldaerak ditugu.

²⁴² Lizarragaren lanetan *gaixto / gaisto* ere bai eta Adoainen *maltxur*. Elkano Larrainzari bildu *kokin* hori, herri honetan bildua izateko bitxi samarra iruditzen zaiguna, hitz frantsesa da, Iparraldeko hizkeretan ongi txertatua, haren esanahiak zera direla: 'pikaro, barrabas' eta 'koldar, txepel'.

Zabalegi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdoztz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	galdegin, galderu	galdin	galdin, galderu, galderu	galdin	galdin	gald(eg)in, galderu
galdu	galdu, galarazi	galdu	galdu	galdu	galdu, galazi	galdu, galarazi
	gambela	gambela	gambela, aspil, maxadera		gambela, aspil, aspil ²⁴⁶	gambela, manyatera
	garaitu ²⁴⁴	garaitu		garaitu	garaitu	garaitu
	garbi, xau / zikin	garbi, txau / zikin	garbi, xau, aratz / zikin	garbi / zikin	garbi / zikin	garbi / zikin
	garbitu, xauru ²⁴⁵	garbitu, txauru / zikindu	garbitu, xauru / zikindu	garbitu / zikindu	garbitu / zikindu	garbitu
gari	gari; ordio ²⁴⁶	gari; garagar	gari; garar		gari; garagar	
	garizuma; bazko ²⁴⁷	garizuma; bazkoa	garizuma; bazkoa	garizuma; bazko	garizuma; bazkoa	garizuma V/I; pazko
	gasta; gaztanbera ²⁴⁸	gasta	gazia		gazia; gaztanbera	
gaste	gaste, gazte / zar, atso ²⁴⁹	gaste / zar	gazte / zar, atso	gaste / zar	gazte / zar, atso	gazte, gaste / zar, zaar
xakintasun	gasterasun; iluntasun ²⁵⁰	txuxentasun; ontasun		itsutasun; lazotasun	luzetasun; ongitasun	gasterasun; oztasun
	gastezuru; aurtzutu	gastezuru; aurtzutu			gazte-denbora	

²⁴⁵ Letro honetara hainbat 'pesebre' mota ekarri dugu. Ilurdozko *maxadera*-k Adoaingo *manyatera*-ren antza du. Hau, Lhanderen arabera, zera da: 1) *crèche, mangeoire de brebis et de montons*, 2) *trappes par lesquelles on jette, de l'étage supérieur, dans le râtelier de l'étable, la nourriture du bétail*. Adibide bat Joannes Erxeberri ziburutarraren *Noelak* liburuko 31. orrian daturatzen da: *Sehaska falbaz manjaret batean da emanen: asto-idiek ban dute iauntzat ezagunaren*.

²⁴⁴ Lerroan: 'vencer': *Icsididigu nola Cristoc gurucificaturic gurucean garaitucitihen gure etsaiac*. Eta Arrietan ere antzera, 'ganar, vencer': *Aini, botatzen al dakók ilzerna, bertzenas garaituko zaik*.

²⁴⁵ Lizarragaren izkribuetan *garbitu* 'limpiar' dugu eta *xauru* 'lavar'. Ilurdozten 'lavar' dira biak, baina *garbitu*, adibidez, aurpegia, eta *xauru*, arropa. Arrietan, azkenik, *garbitu* 'lavar', 'pelar' zein 'matar' esanahiez eman ziguten, gurtxienez; hona azken honekiko adibidea: *fte garbitu zuté bai* [sugea]; *dénnek gaitéan paratú ta... piktatzen, yan zuté déna*.

²⁴⁶ Leihatla honetan: 'trigo' eta 'cebada'. Hona adibidea bigarren hitzari dagokionez: *Bada emén mutico-bát, dituena bortz ogui ordioac...* (SJ-VI-9). Ez Azkuek, ez Mujikak dakar-te hitz hau, baina Iribarrenek Zaratzen eta beste zenbait lekutan ohikoa dela dio, eta, gu geu ere Artzibarko Azparrenen bildurik gaude. Ilurdozko berriemleak, bestalde, *ganara* era la-burtu eta mugatua eman zigun.

²⁴⁷ Lerroan: 'Cuaresma' eta 'Pascua'. Ilurdozten eta Arrietan bigarren hitz hau mugaturik eman ziguten.

²⁴⁸ Bixia iduri dezake agian Lizarragak, behin berriro *gasta* idatzi arren, *gaztanbera* erabili izanak.

²⁴⁹ Lizarragak *xar* ere bai, 'diminutivo de *zar*, *zaar*', Aita Policarporen arabera (FLV, 32).

²⁵⁰ Elkanon, gainera, *anditasun*, *apaltasun*, *edertasun*, *isutasun*, *lazotasun*... eta beste asko; Uritzen, gainera, *velurtasun*; eta Adoainen, *garbitasun*, *gastetasun*, *gogortasun* eta *ihuntasun*, kasu.

Zabalegi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1885	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	gastu, gastatu		gastu, gastatu		gastatu	
	gatu	gatu; basakatu	gatu, katu; basakatu		gatu, katu; basagatu ²⁵¹	
	gatz, azukre, zukure	gatz, azukare	gatz, azukare ²⁵²		gatz, azukre, zukre	
gauza	gauza		gauze	gauza	gauza, gautza	gauza
pensamentu au	gauza gau; gauza goi ²⁵³	ogi gau	gizon gau; zaku goi	grazia gau; birrute ori	gauza gau; zaku goi	emazteki au; kate ori
	geldi geldia; oso osoa ²⁵⁴		geldi-geldie; zuri-zurie		geldi-geldia; luze-luzea	zabal zabala; oso osoa
gelditu	gelditu, baratu	gelditu	gelditu, baratu, paratu ²⁵⁵	gelditu, paratu	gelditu, geltu, baratu	gelditu
artuko; gerratuko	geldituko; ilunduko ²⁵⁶		gelditiko; ilundiko	geldituko; gerratuko	gelditiko; ilundiko	geldituko; artuko
	gerruntze; giltzurrun ²⁵⁷	giltzurrun; gerru	giltzurrun		gerruntze; giltzurrun	
gertatu, pasatu	gertatu, agitu, pasatu	pasatu	pasatu, pastu	pasatu	gertatu, pasatu, pastu ²⁵⁸	gertatu, pasatu

²⁵¹ Arrietako berriemaileak *kattua* ere bai, edo txikia izateagatik edo balio afektiboa erakustegatik, behar bada.

²⁵² Ilurdozko leihatilan *gatz* idarzi badugu ere, *gatz*, *gatz*ea bildu genuen, aurrenekoa mugatu gabe bailegoen eta bigarreña mugaturik. Honen azpiko leihatilarako ere antzera: *gauze* eta *gauzea*.

²⁵³ Lizarragaren lanetan erakusleak era honetan agertzea guztiz ohikoa da. Ilurdotzen, bestelako laginak ere baditugu; *gauza au* eta *gizon ori*; Uritzen, *bekatu au*; eta Arrietan *mai au* eta *merendu oi*, kasu.

²⁵⁴ Aditzondo-kasuetan, Elkanon *zabal zabala* ere bai, eta Ilurdotzen *mantso-mantsoa*. Arrietan era indartu hauek mugaturik, ohiki: *or gelditu zé ixil-isila*. Adoaingo leihatilako adibideak, halaber, esamolde errepikatu hauek bukaerekin du zerikusia, mintzamolde hauek hain ohikoa dena, bestalde.

²⁵⁵ Ilurdozko *paratu* era iragangaitzean dakusagu: *parátu zé ágo (...)* *béiti*. Uritzko adibidea ere iragangaitzean dugu: *eta paracen da Jangoicoain gracian*.

²⁵⁶ Zabalegi, Elkano, Uritz eta Adoaingo materialetan, *-tu / -du* bukaerako partizipioei geroldiko atzizkia eranstea *-uko* dugu beti. Ilurdotzen, ordea, *-iko* izaten da ia beti, inoiz *paratiko / paratuko* edota *gelditiko / geldituko* adituen bagaude ere. Arrietan, halaber, gisa honetakoak dira nagusi: *argitiko, il(l)undiko, segitiko, konpondiko, makurtiko, ellegatikoko, pastiko, paratiko, oztiko, arreñatiko, saritiko...* bestelakoak ere ditugun arten: *ixilduko, prestatuko, gaurituko, fruituko* eta *osatuko, kasu, brinkatiko / brinkatuko* edota *gelditiko / geldituko* moduko pareak izanik ere.

²⁵⁷ Lizarragak *gerruntze* 'cintura' gisa erabili zuen: *eta arturic oyal-bái, paratu-zué guerruntzean* (SJ-XIII-4), baina 'riñón' ere izan liteke, handik urte batzuetara, herri berean, esanahi honekin bildu baitzuen Bonapartek Larraizarren ahotik, eta Ilurdozko berriemaileak ere esanahi honexekin eman baitzigen guri. Dena dela, agian zehatzena Arrietan eman zituzten adierazpena izan liteke: *gerruntziak* eta *giltzurrunak*, biak dira *gatz*. 'los riñones', lehenak gizakumeenak eta bigarrenak animalienak. Elkanoko Lizarragak, dena dela, *giltzurrun* 'riñón' esanahiaz erabili zuen: *giltzurrunetaco miñes* '(murió) de dolores de riñón' (OILL).

²⁵⁸ Arrieta eta Ilurdozko *pasatu* hitz laburrua ez dugu Lizarragaren lanetan aurkitu. Adoaingo izkribuetan *igaro* zein *igaran* ageri dira, baina hortik kanpokoak direlakoan ez ditugu baizitu. Zabalegiko *pasatu* ez dakusagu 'ocurrir' hitzaren sinonimo gisa, 'pasar las cuentas (del rosario)' esanahiaz baizik: *esta lo mismo pasacea esquei errrosarioan granoac*. Arrietan, azkenik, *suertatu* ere bai.

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdoztz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	gezur, gessur, gezurti		gezur, gezurti	gezur	gezur, gezurki	gezur
gibel	gibel, atze ²⁵⁹	gibel, atze	gibel		gibel, gibil, atze	
	gizen, lodi / me(c), flako	gizen, lodi / me, flako	gizen, lodi / me		gizen, lodi / me	argal, flako ²⁶⁰
guatze	goa(t)ze; gela, sala ²⁶¹	goatze; kuarto	goatze, guatze; kuarto	guatze	goatze, guatze; kuarto	guatze; oya; gela, sala
gogo	gogo, gusto, gana	gusto	gusto, gana	gustu	gogo, gusto	gogo, gusto
	gogor / beratz, beratz ²⁶²	gogor / beratz, samur	gogor / beratz	beratz	gogor / beratz, beratz	gogor / samur / E
	goiz, goixartu ²⁶³	goiz	goiz	goiz	goiz, goiztatu, goiztatu	goiz
	golde		kolde; andaitze; arca ²⁶⁴		kolde; andaitze	
	gora, goiti / apal, beiti ²⁶⁵	gora, goiti / apal, beiti	gora, goiti, luze / apal, beiti	goiti, luze	gora, goiti / apal, beiti, bera	
	goratu / apaldu ²⁶⁶	goratu, goititu	goratu / apaldu	goratu, eteki	goratu	altxatu / apaldu

²⁵⁹ Lerroan, kasu honetan, 'detrás': Hona adibide bat: *Nere atzétic etorrico-déna, ene alcinan parátua-dá (SJ-I-15)*. *Gibel* hitza, jakina, gazt. 'higado' ere bada.

²⁶⁰ Adoaingo *argal/hori* 'débil' da, testuinguruaren arabera (Azkuek, esanahi honekin, B, G dela dio): *Ygaro inagan edo pasatu ondoan urte batzuec munduan guizoná, pensatzen ez-tuelaric gáitz batec aspian artzendu, eta momento oro argalizen doa*. Elkanoko Lizarragak ere erabiltzen du hitz hau, baina 'escaso, raro' esanahiaz: *Egin aipatunaidut cein úsu edo argál dén coméni comecitza* (Serm-5). Beste ingurumarian, haatik *—Ain argál dá nola císnebat belza* (Serm-1)—, zailxagoa da jakiten bi esanahietatik zein duen.

²⁶¹ Leihatila honetan: 'cama', 'habitación, cuarto' (*ganbara* ere bai) eta 'sala'. Adoaingo *oya* hitza ('ohé', 'alegía), mugaturik dakusagu Aita Estebanen izkribuetan: *goicean eta arratsean oyará sartu baino len eta oyatic jainqui [sic] ondoan...* Hitz hau inguru honetakoa ote da? zeren, 1971ean, Artzibarko Hiriberriko Francisca Larragetak *guátzeak* aipatu eta, orduan guk hitz honen esanahia ulertu ez genuenez, hark, argitzeko-edo, *oéak, las camas* esan baitzuen. Adoaingo izkribuetan 'lanbera' ere bada: *eta artacotz zuen ehetan eta camberetan ezarri bearditu-tzue Andre dena Mariaren imagina ederrac...*

²⁶² Lizarragak, halaber, *bedatx / berax* darabil, eta *beraxtu* 'ablandar'. Adoaingo VE-en *samurra* 'tierno' agertzen bada ere, Aita Estebanek, izkriburen batean, *samurtu* aditza 'haserretu'ren esanahiaz erabili zuen, Iparraideko zenbat lekutan oihikoa den bezala.

²⁶³ Lerro honetan: '(la) mañana' eta 'madrugar'. Arrietako laguna mintzo: *nere anaéa afaldú ta juán dá segídoá... guátzera; biúr joan... goiztatu bear dá, ardiétara*.

²⁶⁴ Ilurdozko leihatila honetan: 'arado' (*golde* aldaera ere bai), 'timón' eta 'grada, aplanadera'.

²⁶⁵ Leihatila honetan: 'alto' eta 'bajo' ('arriba' eta 'abajo' ere bai). Elkanoko beste leihatilan *altu* ere bai. Ilurdozzen, *luze* —eta *anandi* ere berdin—, 'largo' eta 'grande'rako bakarririk ez, 'alto'rako ere eman ziguten. Urizko *goiti* horren esanahia, haatik, 'altzina' edo 'aurrerá' izatera dator: *datus tsan eta edangabe, gabasco amabietaic goiti*.

²⁶⁶ Lerro honetan: 'levantar' y 'bajar'. Elkanon *goititu* eta *erakixi* ere bai, hau, agian, balizko 'eraxiki' baten metatesia izan litekeena: *Nióri testimonio falsuric gorátu edo eraquichi etzágula* (Dotr-1). Urizko laguna honako testuinguruan: *Zorcigarrena falsu testimonioric echequi ez dezagula*. Adoaingo leihatilan kokatu dugun *altxatu* hitza (lehenago ere, 'esconder' gisa jaso duguna), 'levantar' dugu hemen: *alchaderzagun gure veguac eta icuscodugu...* eta baita 'rebelar' ere: *Amabi garren mendean alchaturiciren Tolosaco aldean heretico batzuc...*

Zabalégi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdoz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
		gorosti; epel; paxaran	epel		korosti; epel; paxaran ²⁶⁷	gorosti VE
	gorputz, korputz	korputz	gorputz	gorputz, gorputz	korputz	gorputz
	gorri; berde; azul	gorri; berde; azul; ori	gorri; berde; azul		gorri; berde; ori	
	gose; egarri ²⁶⁸	gose; egarri	gose; egarri	gose; egarri	gose; egarri	gose; egarri
	gozo, goxo, ezti, dulce	dulze	dulze / kiriz ²⁶⁹	dulze	goxo / pirats	gozo VE, ezti
	gozo / naigabe, pena ²⁷⁰			gozo / pena	pena	gozo / naigabe, pena
guardatu	guardatu, gordc ²⁷¹		guardatu	guardatu	guardatu	guardatu, gordc
	guratsokak, buratsokak ²⁷²	aitatama	aite eta ama	aite eta amak	aitetamak	guratsokak, buratsokak
gure, gauron ²⁷³	gure, gere, geren, geuren	gure, gereben	gure, geren	gure, gauren	gure	gure
gustatu, agradatu	gustatu, kuadratu, atsegin ²⁷⁴	kuadratu	kuadratu	kuadratu	gustatu, kuadratu	agradatu VE, atsegin
	guti, gutiago; eskas ²⁷⁵	guti, gutitu	guti, gutiago, gutiego	guti; eskas	guti, gutiago	gutiago

²⁶⁷ Lerroan: 'ácebo', 'boj' eta 'éspino negro'. Azken honen fruitu 'endrinó'ari ere, askotan, *paxaran* esan ohi zaio.

²⁶⁸ Elkanoan *gose izan*, alde batetik, eta *goseac il / goseac egon*, bestetik; eta *egarri* hitzarekin ere antzera. Ondarrak prestatu lanean, halaber, *goseak egon*, *gose izan* dakusagu.

²⁶⁹ Ilurdozko leihatila honetan: 'dulce' eta 'hedor'. Uritzen, *Salve* izeneko otoitzaren testuinguruan: *O dulce Virgína María*. Arrietan, berriz, *goxo* 'atsegin' modura: *ain goxo zél... artú, árttu kuxéta ta... yáten gínué gustóbra*. Adoaingo *ezti*, azkenik, Elkanoa bezala, zentzu zabalean: *eta orduan mundu hurtaco miseria, gurutze eta... guretzat izanendire eztiac*.

²⁷⁰ Leihatila honetan: 'gozo' eta 'pena'. Lizarragaren idazkietan *bozkariunde* ere bada: *Ezti orri zure mintzoa aditundenecó, salatuudá bozkariundes ene aurra ene sabélean* (Serm-3). Adoaingoetan, berriz, *bozkario*.

²⁷¹ Elkanoan, *guardatu* ere bai.

²⁷² Aita Policarpok 'alguna vez *buratsó*' dio, hitz hau 'guratsó'arekin erkatzean, eta Apececheak, aldiz, 'más frecuentemente: buratsó'. Lizarragak, haatik, *aita ta amac / aitetamak* ere erabili zuen inoiz.

²⁷³ Zabalégiko era intentsiboa zalantzakoa da, *gaurac* batetik atera baitugu, eta Ilurdozko *gereñ* horretan, 'aitagurea' otoitzaren barruan kokaturik egotean, kanpoko eragina egon liteke.

²⁷⁴ Lizarragaren eskuizkribu batean *Naibadiégu quadrátu Jangoicoái...* irakurtzen dugunean, hori 'atsegin eman' dela uste badugu ere, Urizko doktrinan *eta deicea mortalic uzuetan ez zayote cuadracen* moduko pasartearen kasuan 'egokitzten' baten aurrean ote gauden iruditzen zaigu. Arrietako eta Ilurdozko berriemialeek, haatik, Lizarragak bezala, 'atsegin, gustatu' esanahiaz erabili ohi zuten. Adoainen dugun *atsegin* hitza, honen aurreko saioan Lakabeko leihatilan ere ageri zena, Elkanoan Lizarragak erabili zuen halaber, behin bederen, *Koplak* delat lanean. Kanpoko izatearen itxura du halere, gure uste apalean.

²⁷⁵ Lizarragak 'giti' arraro bat idatzi zuen behin, *cein guti zehazki* (NDoc). Ikus, hiru lerro beheerago, Urizko leihatilan ageri den *guzi / gizi* pareta.

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdortz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	guti gorabera	guti gorabera, guti gorabeci	guti gorabera, guti gutien		guti gorabera ²⁷⁶	
guzi	gutika gutika	gutike gutike, guti gutien	gutika gutika	gutia gutia ²⁷⁷	gutia gutia	guzi
	guzi, dena	guzi, dena	guzi, dena	guzi, dena	guzi, dena, dana	guzi
	ibili, ibilli, erabiltz ²⁷⁸	ibili, ibeli, erabili	ibili, ibeli, erabili	ibili, kaminatu	ibili, erabili, erebili	ibili
	idi; adar; mutur	idi; adar; mutur	idi, iri; adar	idi; adar	idi; adar; mutur	mutur/VE
iriki	idiki, ideki / ertxi ²⁷⁹	iriki / ertxi	edeki, ereki / ertsi, ertzi	edeki, ereki / ertsi, ertzi	ireki, ereki / ertsi, ertzi	idiki, ideki / ertsi, etsi
iruki	iduki, eduki, izan ²⁸⁰	iruki, yuki, izan	iduki, iruki, izen	iduki, izan	iduki, iruki, izan	iduki, izan
iduri	iduri, iduritu ²⁸¹	iduri, iduritu	iduri, iduritu, iruitu	iduri, izan	iduri, iruitu	iduri, iduritu
antz, forma	iduri, figura, imajen ²⁸²	iduri	forma	figura, imajen	figura, forma	iduri, imajen, imajin
	igan	igan, ian	igen, iyen, ien, iran	igan, ian	igan, ian, ien, goratu ²⁸³	igan

²⁷⁶ Esamolde hau Arrietako leihatilan kokatu baldin budugu ere, ez zen herri honetan jaso, Aitor Aranak bildu baitzion Soledad Arbonies andere hiriberrari, 2002an, Tafallako agure-egoitza batean.

²⁷⁷ Urizko doktrinan, behin bederen, 'gizi' irakur daiteke: *Guitis direnac montificatuak veren pasionetan*. Aldaera hau Koldo Mirxelenaren *Un catecismo salacenco* izenburuko lanean orobat ageri da eta guk geuk ere, Zaraitzuko Espartzan, 1982an, Telesfora Elarre zenari bildu genion: *faten gintzan... San Tirso egunián, ¡hombre! gitzioke eta...* (FLV, 98).

²⁷⁸ Lerro honetako *erabili* aditza *ibili*-ren sinonimotzat dakusagu. Hona Elkanoko adibidea: *Orrá zure aita ta ni erabiligana zure bila penas beteric* (Serm-1). Arrietan, leihatilakoaz gainera, *ereli* eta *eraili* ere bai: *asi náiz... eréltsen = he enpezado a andar*, adibidez. Adoaingo adibide batek ere, berdintsu, *ibili* eta *erabili* aditz hauen arteko antzekotasuna darakusa: *S. Agustinec dionez, ibiltzendutela osticoca pilotabat bezala zangopean*. Urizko *kaminatu* hitz mailegatua, bestalde, aditz iragankorrekini dugu honako adibidea: *camina dezazun senda chutenic*. Aezkoako Abaurregainean ere aditz iragankorrekini aditu dugu hitz hauxe, Eguberrietako kantu baten testuinguruan: *Zuek pobre zeinbat zaretet-eta, alzina kamina zazie*.

²⁷⁹ Lerroan: 'abrir' eta 'cestrar', baina *ertxi*, kasuaren arabera, 'estrecho' eta are 'apretar, estrujar' izan daitezke; hona Ilurdortzen bildu lagin pareta: 1) *lábbá (...), bére atárrétkin értsi*; eta, 2) *y allí pues iba apretando con las manos, eskuéki, es-kuékin, eritstzen*. Adoaingo *etsi* 'esten' batetik atera dugu.

²⁸⁰ Lizarragaren izkribuetan *euki* ere bai, baina benetan bitxia da.

²⁸¹ *Iduri* gazt. 'parecido, semejante' izateaz gainera, 'parecer' ere izan daiteke: *cerén apénas da niór, nóri etzáion idúri óngui bere búrra* (Serm-3). Ilurdortzen zera dugu: *óngi éski idúri dá* 'parece bastante bien'.

²⁸² Hona bi adibide: 1) *Emastequiáin izátea estágo idúrian*; eta, 2) *Orgátic ere Espiritu Sándua báizcoa maizacoetáin etorriize apostoluetáru susco mibatzuen figúnan* (Serm-1). Elkano honetan *ixxura* ere bai. Eta, jarraian Arrietako bertiemailera mintzo: *bueno, káruin... forma edo ó(t)soin... figúra, ór gelditiko da* (EAEL, II, 216. etnotestua).

²⁸³ Arrietan, *goratu* iragangaitz moduan: *juán nitzá kuárroná; prísaka, ártu... katedrá ta, gorátu nitzá eskopéia artzéra*. Ilurdortzen *igan / iran* ere bai eta, horrez gainera, 'ha subido' adierazteko, *juan da goitire* eta, 'ha bajado' kasurako, *etorri de beitre*, inguruko beste zenbait herritan bezala.

Zabalégi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
eskapatu	igande; larunbat ²⁸⁴ iges egin, eskapatu	igande; lagunbat igasi, igesi, eskapatu	igende; larunbat eskapatu, iyesi*	igande igasi in, ias	igande, iende, idiande eskapu, eskapatu	igande; larunbat eskapu, eskapatu ²⁸⁵
	igitai	egitai; sega	igitai, igitai; sega ²⁸⁶		(e)litai, egite; tallu, talla	egitai VE
	igorri, bial; bialdu ²⁸⁷ ijiji ajaja ²⁸⁸	igorri, bialdu	igorri, egorri		igorri, iorri, biali, bialdu ijiji-ajaja	igorri, egorri
ikasi	ikasi, estudiatu	ikasi	ikasi, ikesi, estudiatu	ikasi	ikasi, estudiatu	ikasi
	egur; ikatz	egur; ikatz	egur; ikatz	egur; ikatz	egur, eur, ikatz	ikatz
ikusi	ikusi	ikusi	ikusi; ekusi; kusi	ikusi	ikusi, kusi	ikusi, ekusi
artuko dut	ikuskoz ²⁸⁹	ikuskoz ²⁸⁹ ; ikusko dugu	ikuskoz ²⁸⁹ ; ikusiko dute	gozatuko dute	ikusko dugu	adituko duzue
il	il / biztu, erresuzitatu ²⁹⁰	il	il, il	il / bistu, erresuzitatu	il, ill	il / piztu
	iltzekotan; izatekotan ²⁹¹			iltzekotan	botatzekotan	

²⁸⁴ Lizarragaren lanetan, asteguneko beste egunen izenak honakoak dira: *astelen, astearte, asteazken, ortzegun* eta *ortzilare / orzilare* (nahiz, JMeb delakoan, *ostilare* dakusagun). Herri bereko Larrainzarrek emanikoak hauek dira: *astelen, astearte, asteazken, ortzegun* eta *ortzilare*; Ondarrak, *ortzilarean* idaztean, hitzaren barmeko lar zatia letra etzanean agertarazi zuen (akats bat zelakoan, agian?). Argi dago, baina, hitz hau horrela erabilia dela ingurumari hauetan. Ilurdotzen, *astelen, astearte, asteazken, ortzeun* eta *ortzileria* –hau mugaturik damagu–. Arrietan, *astelen, astearte, astiazken, ortzegun* eta *ortzilare*. Eta, Adoaingo I. izkribuan, *astelen, aste arte, aste azquen, ortz egun* eta *ortzilare*.

²⁸⁵ Adoainen, *espakatu* aldaera metatesiduna ere bai.

²⁸⁶ Lerroan: 'hoz' eta 'guadaña'. Arrietan, *eitai* eta *itai* eman ziguten, baina *eitaria* 'segador', baita 'egitan aritu, egitatu' (gazt. 'segar') ere: *aitátsi okérru zá... eghtan ai tzeláik, garia móz-ten, espigák man tzeók... begian ta... lérru*.

²⁸⁷ Elkanoko Lizarragaren lanetan *igorri* maizago *biali* baino, Aita Policarporen arabera (FLV, 30).

²⁸⁸ Gazt. 'risotada' edo. Elkanoko Lizarragak honela dakar: *mundocho adiskuideac acabatudire, ijiji ajajac passatudire* (Serm-1). Arrietan honako adibidea dugu: *Géro... fraílka pues, ji-ji-ajaja omén tze*.

²⁸⁹ Elkanoko Lizarragaren leihatila honetan *ikusikozu* / *ikusko dugu* ere bai.

²⁹⁰ Elkanoko Lizarragarenzat *biztu* 'resucitar' zein 'revivir' zen, inoiz *erresucitatzén* idatzi bazuen ere. Urizko kristau-ikasbidean *resucitatu* ere bai: *Eta orduan veaute ilec resucitatu?* Adoainen *pizatu* / *pizutu* bitxia, agian zalantzagarrria, eta are *ilqui* / *elqui* pareta ere, 'salir' edota 'resucitar'; Lapurdi aldean ikasirikoa? zeren *elki*, bederen, Urraulgoitirekin mugatzen duen Zaraitzuko ibarrean ohikoa izan batta.

²⁹¹ Ilurdotzko datuetan deus ikusten ez badugu ere, Inbuluzketa hurbil herrian *yatekotan* eta *matekotan* / *ematekotan* bildurik gaude.

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdutz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	ilindi ²⁹²		ilingi		ilindi	
	ilun, ilundu	ilunsarre ²⁹³	ilun, ilundu, ilunabar		ilun, ilundu, ilundu	ilun
	ilunkara; luzekara ²⁹⁴		itsusikera; belzkara			
	inare	inare; zozo; biligarro ²⁹⁵	inare; zozo; biligarro		ninare?	zozo VE
indar; borondate	indar; borondate ²⁹⁶	borondate	inder; borondate	indar; borondate	indar; borondate	indar
infernu / paraiso	infernu / paraiso	infernu / paradiso		infernu	infernu	infernu
	inguru, inguratu	inguru, inguretu	inguru, inguretu		inguru, inguratu	inguru, inguratu
	inxaur; ixaur; kastaña	inxaur; ur; gastaña	eltxaur; ur; gastaña ²⁹⁷		ixor; inxor; ur; gastaña	kaztaña VE
	io, iotu; irin ²⁹⁸	igo; irin	erotu; irin		io, iotu; irin	
	ipar		ipar, ifar, aize-ipar		iperralde, iparbelz ²⁹⁹	ifarralde VE
	irabazi, iragazi, iragasi	erabazi	irabazi, iratzi, iretzi	igarazi	irabazi, iazi	irabazi ³⁰⁰
	iraun, irauandu	iraun	iraun, ireun	kontinuatu	iraun	

²⁹² Gazt. 'tizon o roña del trigo'; hona Lizarragak idatzia: *contu inzágun, eraiqui garia, ta izulidela ilundia* (Serm-3). Ilurdozko berriemailea honela mintzatu zen: *es el contrario del trigo; un grano como el trigo, pero negro*. Arrietakoak, behin, hori gazt. 'cizaña tzat jo bazuen ere, beste aldi batez landare hauxe izendatzeko *lóllo* hitz egokia erabili zuen. Artzibarko Azparren herrikkan, azkenik eta bidenabar esanik, *ilngia* eman ziguten, *el mismo trigo que se vuelve un pobillo negro*.

²⁹³ Ondarrak prestatu lanean zera dakusagu: *ilunsarre*: Elkano y Puente / *ilunsarre*: Olza y Goñi. Beste leihatiletako *ilundu* zein *ilunabar* hitzekin zer ikusia duelakoan, hor idaztea egoki iruditu zaigu.

²⁹⁴ Lerro honetan dugun *-kara* atzizkia gazt. 'urando a' edo da. Ilurdutzen, gainera, *debilkera* 'debilitado' eman ziguten.

²⁹⁵ Lerroan: 'golondrina', 'mirlo, tordo' eta 'malviz'. Lehenengo, baina, 'vencejo' izan liteke Arrietan.

²⁹⁶ Lerro honetan: 'fuerza' eta 'voluntad'. Ilurdozko *inder* hori oso testuinguru berezian: *atze bat inderkoa, un aire fuerte* esan baitzuen bertako berriemaileak.

²⁹⁷ Lerro honetan: 'nuez', 'avellana' eta 'castaña'. Elkanoko Lizarragak inoiz *giltzaur* erabili zuen. Ilurdutzen *eltxaur* ere bai. 'Hur' hitza, berriz, mugaturik, *urria* eman ziguten Ilurdutzen eta *urra* Arrietan.

²⁹⁸ Lerroan: 'moler' eta 'harina'. Arrietan, mugaturik, *irina* zein *irriñe*.

²⁹⁹ Arrietan, *iperralde* 'el cierzo' eman ziguten behin, eta *iparbelz*, *el viento*, *el cierzo negro*, *oscuro* beste batean, zera gaineraturik: *enseguida tenia las langarnas... pur-pur-pur-pur, lan-gárrak or*.

³⁰⁰ Adoainen, baina, *irabastendela* dakusagu, inguru hauetan ohikoa den *zt > st* aldaketari jarraiki. *Irabastendirela* ere bada, baina.

Zabalegi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	irri, irri egin, irri in	irri, irri in	irri in		irri in	farre egin/VZ ³⁰¹
irur	iru, irur; irue(g)un ³⁰²	iru; iruetanegun	iru; iruegun	iru, irur	iru; iruegun	irur; irueun
irugarren, irugarren	irugarren	irugarren	irugarren, irugarren	irugarren, irugarren	irugarren	irugarren
	Iruñe, Iruñe; Iruñera		Iruñe; Iruñera; Iruñen ³⁰³		Iruñe; Iruñera; Iruñen	
	iruetanogei, iru(r)ogei	iruetanogei ³⁰⁴	iruetanogei		iruetanogei	irurogei, irurogoi
	iruzki; ilargi; izar ³⁰⁵	iruzki; ilargi; izar	iruzki; ilargi; izar	iruzki	iruzki; ilargi; izer; izar*	eguzki; izar
	itsaso; ugalde	itsaso; ugalde	itsaso; ugalde; ubelde		itsoso; ugalde; ugalde	itsaso
	itsu, oker; sor; mutu ³⁰⁶	itsu, oker; sor; mutu	otso, isu*, oker; sor	itsu	itsu, oker; sor	itsu, oker; sor; mutu
	itsusi	ixusi	ixusi; zakar ³⁰⁷	ixusi	ixusi	ixusi
itz	itz, mintzo, solas	itz	itz, yolas	itz	itz, mintza; ele	itz, solas, ele
klabo ³⁰⁸	itze; mallu; zerra	itze; mallu; zerra	itze; mallu; zerra		itze; mallu; zerra	itze
	itzuli, biurtu, irault ³⁰⁹	itzuli, biurtu	itzuli	itzuli, biurtu	itzuli, biurtu, biurri	itzuli, biurru

³⁰¹ Adoaingo lagina (gazt. 'reirse') bitxia da hor, *farre* / *barre* / *parre* aldaerak Irurtzundik mendebalderantz ikusten baititugu soilik (EAEI, 1); Espartzan eta Uztarrozen, *barra*. Ez da, beraz, bertakoa, antza denez.

³⁰² Lizarragak *irur* (*iru* ere bai, baina oso gutxitan) / *iruna* / *iruretaic* erabili zuen, alde batetik, baina *irugarren* / *iruetan* *ogueti*, bestetik.

³⁰³ Ilurdotzen, gainera, *Iruñeko* / *Iruñetik* dugu eta Arrietan baita *Iruñean* ere.

³⁰⁴ Elkano Larrainzarren leihatilan *iruetanogei* idatzi badugu ere, Ondarrak prestatu lanean *oruetanogei* dakusagu, akatsa ziur asko, aldamenen ez baitzuen '[sɪç]' idatzi.

³⁰⁵ Lizarragak *eguzqui* ere zenbait alditan erabili zuen eta Adoaingo Alta Escreban izkribuetan, orobat, hori bera dugu. Arrietan, berriz, *iruski*, *illargi* eta *izar* ere bai, azken hau geuk bultzaturik, baina.

³⁰⁶ Leihatila honetan: 'ciego', 'tuerto', 'sordo' eta 'mudo'. Urizko hitza *isutasun* batetik hartu dugu.

³⁰⁷ Ilurdotzen, halaber, *isusikera* hitza bildu genuen: *in nio nère anáyai zéñu bet isusikéru* ('un ademan feo' izan zen galdera). Arrietan, berriz, 'ixustu = afeaz' dugu: *zárta óndoan, isúsitan da*. Urizko doktrinan *isusiac* dakusagu, baina hori, 'isusiac' izan daitekeen ustean, bere leihatilara ekartzean 'ixusi' idatzi dugu, dokumentu horretan *ts-ri* eman diogun balioa, behingoa, kontuan izan gabe. Lizarragaren ekaietan *zakar* hitza ez dugu ikusten, Esteribarko Ilurdotzen eta Inbuluzkeran eta Erroibarko Urnizan bildurik gauden arren.

³⁰⁸ Zabalegikoa *clavatu* hitzetik hartu dugu, predikariak erdal mailegua erabili baitzuen.

³⁰⁹ Leihatila honetan: 'volver', 'dar vuelta, volcar', 'retorcer' edota 'devolver'. Elkano Larrainzarren leihatilako *biurtu* 'torcer' da, eta 'volver los ojos' edota 'retornar', adibideen araberá, Adoainen.

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdortz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	ixildu, ixilli, ixil ixila ³¹⁰	ixildu	ixilli, it(ox)il-it(ox)ile	ixildu	ixildu, ixilka, ixil-ixila	ixildu
izan, izandu	ixuri	ixuri		ixuri	isurtu	ixuri
izan, izandu	izan, izandu	izan	izan, izen, izendu	izan	izan, izen	izan ³¹¹
izanen, izain	izanen da, izain da ³¹²	izain da	izein da, izain de	izanen da, izain da	izain da, izain da	izanen da
	izen, nonbre, aipatu	izen, nonbre	izen, aiteau, nonbratu	izen	izen, nonbre, nonbratu	izen
	izerdi; muñak	izerdi; muñ	izerdi; muñek	izen	izerdi; muñak	izerdi
	izotz; kazkaragar ³¹³	izotz; kazkaragar; ari	izotz; kaskarabar	izotz; zizoz, elur-izitar	izotz; zizoz, elur-izitar	
	izotzila; oxalla ³¹⁴	izotzila; oxella	izotzile; otsaila		izotzila; otsaila	
festibildade	jai, festa; dantza, dantza	xai	festa; dantza ³¹⁵	xai, festa	festa; dantza, lantza	besta; dantza

³¹⁰ Lerro honetan: 'callar' eta 'calladamente, muy calladamente'. Adoaingo hitza *ichiltze* batetik ateratzen da.

³¹¹ Aita Estebanek, inoiz, inguru hauetan guztietan aurkitzen dugun *-n* bukaeradun aditzen '-teko' nominalizazioaren ordean, '-iteko' erabiltzen du: *eta hula asqui cela doatsua izaitte-co...* (I-Izkr).

³¹² Era literarioa da 'izanen da', Gulibarrik Aezkoaraino, biak barne, *izain / izain* baizik ez baitugu bildu, Ezkabarteko Anotzen *izeindu* eta Esteribaroko Inbuluzketan *izeingo* aditirik ere. Elkanoko bigarren leihatilako emaitza *erori izain* batetik ateratzen da. Adoain, arestian aipatu era literarioaz gainera eta aditz zaharrekini beti ere, *egongo, joango...* gisako emaitzak ikusten ditugu.

³¹³ Lerroan: 'hielo' eta 'granizo'. Elkanoko Lizarragaren leihatilan *izotz* ere bai eta Ilurdortzen, *izotz*-ez gainera, *orma, ari txár* eta *arri txipi* zein *txinxorri*; hau *granizo muy pequeñin*, omen. Elkanoko beste leihatilako *arri* 'granizadà gruesa' da Ondarrak aurkeztu lanean. Arrietan, azkenik, *gau gúizian elúr, eguri ta elúr... izaitzarrák* ('bolas de granizo?') bildu genduen, nahiz Arzibar bereko Azparrenen *kazkaragar* eman ziguten, Elkanon eta Ilurdortzen bildu bezala.

³¹⁴ Elkanon, Lizarragak honela osatzen du hamabikoa: *martxo, aprila, maiatza, garagarzaroa, garilla, agostua, urria, lastalla, azaroa eta aendua (JMcsb)*. Bere herrikide Larrainzarrek honela: *marxo, apilla, maiatza, garagarzaro, garilla, agostu, urri, lastalla, azaro eta aendua*. Ilurdortzen, *oisella* ere eman ziguten eta, hortik aurrera, *martxo, aprille, maiatza, garagarzaro, garille, agostue -ya... casi castellano, agostue-, urria, joro! -setiembre, jurria le llamabani... yo no sé si pronunciaban bien-, después, octubre... de octubre no me acuerdo, no me viene...* (Galdetu genduen - Lasta...?) - *Ab, sí, puede que sea lastalla, azaroa, aendua! ya se acabó*. Arrietan apenas dugu adibiderik, baina Eriksizundi Irukoitzak (*ED*) izen guztiak dakartza: *izotzila, otsaila, marxo, april, maiatz, garagarzaroa, garilla, abuztua, urri, lastail, azaro eta aendua*. Damurik, Adoainen *mayatz* baizik ez dugu, Aita Estebanek, halako batean, *Mayatzco ilabete huntan* idatzi baitzuen. Juan San Martinek argitaratu *VE*-an bai, izenok ageri dira, baina ez ditugu hona ekarri nahi izan, erdiek-edo, gure ustez, alderdi honetakoak izatearen bermea eskaintzen ez dutelako.

³¹⁵ Ilurdortzko berriemaitleak hitza mugatzen *festa* esan zuten, inoiz-edo erakutsi joeraren arabera.

Zabalegi 1785	ELKANO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	jaintsi, bestitu ³¹⁶	bestitu, paratu	bestitu	bestitu	bestitu, bestitu	bestitu, bestitu, jantzi
xakin	jakin, xakin ³¹⁷	xakin	jakin, xakin, yakin	xakin	yakin, iakin	jakin, jakindu
xan	jan, xan; edan	jan, xan; edan	jan, yan, xan; edan ³¹⁸	xan; edan	yan, ian; edan, ean	jan; edan
ekamiari	janarazi; edanarazi ³¹⁹	xanarazi; lerrarazi?	sarrazi; atrazi	erorasi	yanazi; edanazi; edanasi	aterarazi; azkararasi
eman xatera ³²⁰	jatera ematea		xatera man	xatera ematea	eman dira yatera	sartzera utzi
Jangoiko	Jangoiko	Jangoiko	Ja(u)ngoiko, jainko ³²¹	Jangoiko	Jangoiko, Yainko, Yinko	Jaugoiko, Jainko
Jangoikoaren grazia	Jangoikoaren grazia ³²²	Pedroin baitan	Pedroin exa	kristioin dorrina	Pedroin txamarreta	Jaugoikoaren grazia
	jarduki, mintzatu	xarduki	yarduki, mintzatu ³²³	xarduki, mintzatu	yarduki, mintzatu	mintzatu, iz egin
	jari, xari / jaiki, xaiki ³²⁴	xari / xaiki, saiki (!)	yari / yaiki	xari / xaiki	yari, xari / yaiki, yeiki	jari, yari / yaiki

³¹⁶ Elkano *jaintzi* ere bai, baina gutxiengoan dakusagu *jaintsi*-ren aurtean. Dena dela, Apececheak dioskunez, *jaintzi* 'revestir' ere bada: *Au dá Jesu Christo, gure amóres jautsicéna Cértic, ta izánic gloriaco Errégue jaintzicéna gure araguisco zamárra pobregúu (DCC)*. Adoingo leihatilako *jaintzi* hitza, bestalde, bertokoa ore da:

³¹⁷ Elkano *ko* Lizarragaren *jakin* hori, hurrengo lerroko *jan* eta geroxeagoko *josi* direlakoak, ohikoagoak dira *xakin*, *xan* eta *xosi* baino, Aita Policarporen arabera. Zabalegi *semmoiari* erreparaturik, bestalde, hor *saquintasum* badakusagu ere, hartaz eskuz egin zen kopia batean *saquintasun* irakur daiteke. Azken honen hasiera baliatu dugu, beraz, hitza hona ekartzean, bestea baino egokiagoa delakoan.

³¹⁸ Ilurdotzen eta Arrietan *enan* aldaera ere bildurik gaude. Zabalegi *lagina eta ez zauca cer eman satera* esalditik atera dugu; hots, 'san' izatea zailtxo iruditzen zaigunez, 'xan' idaztea hobetsi dugu.

³¹⁹ Lizarragaren izkribuetan *-arasi* bukaera maiz dakusagu: *aparranasi, sentianasi, mintzanasi, chastanasi*... adibidez. Urizkoa, *eromstera* baterik hartu dugu, 'erorazi' izan nahi duen ustez.

³²⁰ Zabalegi *semmoiari*, arestian aipatu bezala, *eman satera* idatzi zen. Arrietako leihatilan ageri dena 'hark hura niri' da. Adoingo *lagina, azkenik, jarraiko* esalditik atera dugu: *Aingueru bat ezarriuzen bortan espata batequin nior sartzera ez usteco*.

³²¹ Ilurdotzen eta Adoainean *Yainko* ere bai.

³²² Zenbait alditan, baita Lizarragaren izkribuetan ere, inoren izenari atziki genitiboduna egokitzean, honek *-ain* egiten du. Joera hau, lerroko emaitzei behatua emanez, oso zabala da eta erabatekoa dela ikus dezakegu. Uritzen, leihatilakoaz gainera, *Jesukristoin promesak* ere bai, baina baita, haatik, *Jangoikoaren ama*. Zabalegin, ordea, bestelako kontua dugu, leihatilakoaz landara, *Jangoikoan grazia* irakur baitaiteke.

³²³ Ilurdotzen *yarduki / xarduki* ere bai, eta Arrietan *iarduki*. Adoingo *itz egin* hori, berriz, nekez irudikatzen dugu inguru honetan, '(h)it'z elea ezaguna izan arren, baina *VE*-en *erasi* bat, 'charlar', bada, Arrietatik hurbileko Hiriberrin aspaldi aditu genuen 'erasi' bateatik gertu dagoena: *erási bat gáitza*.

³²⁴ *Jari* 'sentar' bezainbeste 'posar' izan daiteke: *Itasi-dutela Espiritua jausten certitic iso-báten idárian, eta jari-céla beurrén gáitean* (SJ-I-32). Urizko eskuizkribuan *ssarrin* eta *isáiqui* dakusagu idatzirik. Arrietan, *jaiki / jelti* ere bai. Adoainean, zera izan daiteke: 1) 'sentar': *Guevo jar anazendute arribaten gáitean, eta canaberraco maquil bat ezarrenditore escuan* (II-Izkr); 2) 'postar' edo: *Emen Jesucristoren guruzearen aintzinean jarriric belauinco...* (II-Izkr); eta, 3) 'poner, situar': *eta baldin urriquimenduarequin errebitzenbaduzu absolucionia jarzen zara Jincioaren grácian* (VIII-Izkr).

Zabalegi 1785	ELKANOKO <1800>	Elkano 1869	Ilurdotz 1985	Uritz 1865	ARRIETA 1985	Adoain <1855>
	jasi, xasi, aguantatu ³²⁵		aguantatu		aguantatu, soportatu	
jaun	jaun; jabe; nagusi, nausi	jauna	jaun; nausi	jaun; xabe	jaun; jabe; nausi	jaun; nagusi
txautxi	jausi ³²⁶	xautsi, erauntsi	erauntsi	xautsi, xautzi	sautsi, sousi, jausti, jetsi	jausti
	jende; ezaun ³²⁷	jende	jende; yende; zaun	jende	jende, yende; ezaun	yende, jende
	jo, zurrau / defendatu ³²⁸	xo, porrau / defenditu	yo	xo	yo, jo, eguru / defenditu	jo, kolpatu / defentsatu
juan	joan	joan, juan	joan, juan, yoan, yuan ³²⁹	juan	joan, juan, jun	joan, yoan
	jokatu, joku, xoku ³³⁰	xokatu	yokatu, xokatu, yoku		yokatu, yoku	yoku
	josi, xosi; ari, biru	xosi	yosi, zoztu; ari		yosi; ari	josi
	justo, txusto, txustoki		justu-justu, justo-justo	justo	justo-justo ³³¹	justu, justo, yusto
	kalte, dañu			dañu	daño, txandrio	
	kanibeta; nabala	kanibeta; nabaja ³³²	kanabite; nabala		kanibeta; nabala	ganibeta VE

³²⁵ Elkanoan *soportatu* ere bai. Hona adibidea: *baña zué ezdezaquéze jasi ta sopórta orái* (Serm-1).

